

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

Canvas LMSaren konfigurazioa, ikastaroa sortzeko gida-liburu laburra eta Moodle-ekin konparaketa

Egilea

Joana Eslava

Zuzendaria

Juanan Pereira



2021



Laburpena

Lan honen bidez Canvas LMS plataformaren konfigurazioa eta funtzionamendua, honetan ikastaroak nola sortzen diren adieraziko duen gida-liburu laburra eta praktikan lortutako eskarmentuan oinarrituko den Canvas LMSaren eta Moodle plataformaren arteko alderaketa egingo da.

Gaur egungo hezkuntza sisteman geroz eta garrantzia handiagoa bereganatzen ari diren irakaskuntza plataformetatik “ezezaguna” zaigun Canvas LMSa aztertzea izango da lan honen helburua. Horretarako LMSak zer diren, hauek jasandako eboluzioa zein mundu mailako erabilera estatistikak, hala nola Canvas LMSaren funtzionamendua ezagutu eta bertan ikastaroak sortzeko jarraitu beharreko pausuak dokumentatu ondoren, erabiliena den Moodle plataformarekin dituen antzekotasun edota ezberdintasunak aztertzea izango da; horretarako ezaugarri eta ezarpen adierazgarrienen konparaketa garatuz.

Gaien aurkibidea

Laburpena	1
Gaien aurkibidea	2
Irudien aurkibidea	3
Taulen aurkibidea	5
1 Sarrera.....	6
2 Proiektuaren helburuak	8
3 Metodologia	9
4 Marko teorikoa.....	10
4.1 Zer dira LMSak?.....	10
4.2 LMSek eduki beharreko ezaugarri nagusiak	11
4.3 LMSen eboluzio eta historia laburtua	12
4.4 LMS erabilienak.....	14
4.5 Instructure Canvas LMS.....	17
5 Moodlen egindako ikastaroa.....	19
6 Canvas LMSan ikastaroa sortzeko gida-laburra.....	24
6.1 Lehenengo pantaila.....	24
6.2 Ikastaroa sortzen	26
6.2.1 Ikastaro ezarpenak	28
6.2.2 Ikastaroaren lehen orriaren konfigurazioa	29
6.2.3 Orriak	30
6.2.4 Berriak.....	31
6.2.5 Moduluak	32
6.2.6 Foroak.....	33
6.2.7 Galdetegiak.....	34
6.2.8 Zereginak.....	36
6.2.9 Edukien lanketarako baliabideak	37
6.3 Erabiltzaileak gehitzen	39
6.4 Ikasleak ikastaroan gehitzen	40
6.5 Baldintzazko jarduerak	42
6.6 Kalifikazio liburua	43
7 Canvas eta Moodle-en arteko konparaketa	46
8 Ondorioak	51
Eranskina 1.....	54
Bibliografia.....	55

Irudien aurkibidea

4.1 Irudia - LMS-en historia laburtuaren denbora lerroa	13
4.2 Irudia - 6 Year historical LMS Breakdowns by Region as Percentage of Total.....	14
4.3 Irudia - LMS Market Share For US & Canadian Higher Ed Institutions (year-end 2020 edition).....	15
4.4 Irudia - LMS Distribution (Fall 2016) Percentage of European Higher Ed Institutions Usind Each LMS as Primary System.....	16
4.5 Irudia - Percentage of New LMS implementations by Year in Europe.....	16
4.6 Irudia - Canvas LMSaren logoa.....	17
5.1 Irudia - Moodle ikastaroa sortzen	19
5.2 Irudia - Moodle ikastaroaren ezarpenak.....	20
5.3 Irudia - Moodle ikastaroko hasierako atala.....	20
5.4 Irudia - Moodle ikastaroetako baliabide eta jarduerak.....	21
5.5 Irudia - Moodle baldintzazko jarduerak.....	22
5.6 Irudia - Moodle ikastaroetan dominak ezartzen	23
5.7 Irudia - Moodle ikastaroen kalifikazio-liburua	23
6.1 Irudia - Canvas LMSaren arbela.....	24
6.2 Irudia - Canvas LMSaren administratzaile kontuaren zenbait ezarpen.....	25
6.3 Irudia - Canvas LMSaren barne mezularitza	26
6.4 Irudia - Canvas LMSan ikastaroak sortzeko bi aukerak	27
6.5 Irudia - Canvas ikastaroaren sortzen.....	27
6.6 Irudia - Canvas ikastaroko ezarpenak.....	28
6.7 Irudia - Canvas ikastaroko lehengo orriaren konfigurazioa	30
6.8 Irudia - Canvas ikastaroko orriak baliabidea	30
6.9 Irudia - Canvas ikastaroan berriak/oharrak sortzen.....	31
6.10 Irudia - Canvas ikastaroan moduluak sortzen	32
6.11 Irudia - Canvas ikastaroko jarduerak eta baliabideak.....	32
6.12 Irudia - Canvas ikastaroan eztabaida foroak sortzen	33
6.13 Irudia - Canvas ikastaroan galdetegien sorrera	34
6.14 Irudia - Canvas ikastaroko galdetegien ezarpenak	34
6.15 Irudia - Canvas galdetegietako galderak sortzen	35
6.16 Irudia - Canvas ikastaroko zereginen ezarpenak	36
6.17 Irudia - Canvas ikastaroko errubrikak sortzen	37
6.18 Irudia - Canvas ikastaroko orriaren adibidea.....	38

6.19 Irudia - Canvas ikastaroko orriaren adibidea.....	38
6.20 Irudia - Canvas ikastaroan lanketarako fitxategiak gehitzen	38
6.21 Irudia - Canvas ikastaroan lanketarako URLa sortzen.....	39
6.22 Irudia - Canvas LMSan erabiltzaileak sortzen	39
6.23 Irudia - Canvas erabiltzaileen sarbidea gehitzen	40
6.24 Irudia - Canvas ikastaroan ikasleak gehitzen	40
6.25 Irudia- Ikasleak gehitzeko ezarpenak	41
6.26 irudia- Canvas ikastaroan ikasle taldeak sortzen	41
6.27 irudia- Canvas ikastaroan baldintzen ezarpena	42
6.28 irudia- Canvas ikastaroetako kalifikazio-liburua	43
6.29 irudia- Canvas ikasle baten kalifikazio-liburu zehaztua	44
6.30 irudia- Canvaseko SpeedGrader baliabidea	45
9.1 irudia- https://canvas.ikasten.io -n sarbidea eta erabiltzaile ezberdinak	54

Taulen aurkibidea

7.1 taula - Canvas LMSaren eta Moodlen ezaugarri teknikoen konparaketa.....	47
7.2 taula - Canvas LMSaren eta Moodle ikastaro ezaugarrien konparaketa	49

1. KAPITULUA

1 Sarrera

Gaur egungo bizitzeko modua eta gizarte bezala elkar eragiteko, sozializatzeko moduak aldatu dira, esparru sozialean ez ezik lan eremuetan ere ematen ari diren aldaketak ezeztaezinak suertatzen zaizkigu. Aldaketa guzti hauek teknologian, munduak bizi izan duen digitalizazioan, dute abiapuntu; gaur egun etengabe konektatuta bizi gara eta bere alde txarrak (zibererasotzaile, zibererasoak,...) dituen arren, askotarikoak dira alde onak ere; elkarren arteko komunikazioetarako eskaintzen duten erraztasuna, espazio edota denbora asinkronian gertatzen direnei (whatsapp, e-posta, bideo-deiak,...), giza segurtasunean duten eragin baikorra (lan esparruan emandakoak, adib.) gehitzen zaizkio. Gainera, nonahi, noiznahi, nahieran jarduteko aukera (smartphone, tablet-en bidez) bai lanerako zein aisialdirako izan daitezkeenak eskainiz, baita erosketak egin ahal izateko, irakurtzeko (e-bookak) edota sare-sozialen erabilera dira oro har teknologiek ahalbidetutako aukeretan erabilienak.

Digitalizazioa oinarri/gidari izanda, ukaezina da gizarteak etengabeko aldaketa eta bilakaeran jardun behar izan duela azken hamarkadetan zehar, eta etorkizunean ere jardun beharko duela. Baina zergatik ezin dugu hezkuntzaren bilakaerari buruz berdina esan? zergatik ez da hezkuntza-sistema gaur egungo garai digitalera gizartea bezain azkar moldatu? Galdera erantzutea sakonegia izan daitekeelakoan nago baina, bilakaera horren alde egiteko beharrarekin azken urteotan ikasketa eredu ezberdinak izan dezaketen erantzukizuna erakutsia izan da; hezkuntza sisteman bilakaera bultzatzeko eta bai pedagogikoki zein metodologikoki aldaketak sustatu ahal izateko aukerak eskaini dituzte, informazio eta komunikazio teknologiak (IKT-ak) eskaintzen dituen hamaika aukera erabilita i(ra)kaskuntza-prozesuan modurik eraginkorrenean eragiteko helburuarekin: aurkezpen digital/interaktiboak, infografiak, elkarlana sustatzeko baliabideak, bideoak edo gamifikazioa oinarri duten baliabideak besteak beste. Horietan oinarri sendoak eskuratzea ahalbidetuko dutenak *Learning Management System*-ak (aurrerantzean LMS) izango dira, bertan ikasleak bildu, elkarren arteko komunikazioa sustatu eta ikasketa-prozesuan gidatzeko aukerarekin,

baita edukien lanketa eta burutu beharreko jardueren euskarri izango dira; ikasgela birtualetan bilakatuz, esan beharra dago hezkuntza-eredu eta kasuan-kasuko metodologiaren arabera garrantzia-maila ere aldakorra izango dela.

Covid-19a dela medio, iazko ikasturtean ezinbestean moldatu behar izan genuen egun batetik bestera aurrez-aurreko hezkuntza eredua online eredu batean. Eredu honetan ezagutzak exkaxak izanda ere (kasu askotan gertatu zen bezala), nahi eta nahi ez egokitzeko beharra pairatu zuten irakasle askok, galduta edota kudeaketa egokia bermatzeko ezagutza nahikorik gabe. Horrelako egoera baten aurrean hezkuntza-sistemak digitalizaziora egokitzeko duen beharra agerikoa izan zela uste badut ere, guztion arteko elkarlana eta inplikazioa beharrezkoa dira hezkuntza-sistema gaurkotu bat egokitzeko, ezinbestean ikasleen ongizatea helburutzat duena. Esan beharra dago, hezkuntza-sistemak aldaketarako bidean dagoela, horren argibide *DigComp 2.1* europar (Carretero et al., 2017) markoa bidelagun ikasleek eta herritar orok garatu beharreko gaitasun digitalak zehaztuta daude 2017. urteaz geroztik, honekin batera *DigCompEdu*-ren (Redecker, 2017) bitartez europar markoan irakasleak norbanakoaren gaitasun digitalak zehaztuko dituen mailaketa estandarrak oinarritzat ditugula urte berdinetik; baita espainiar estatuan INTEF-en eskutik urte bereko irailean bideratutako Competencia Digital Docente markoan biltzen direnak ere.

Aldaketa honetan lagungarria izan zitekeelakoan eta LMSak aldaketa honetan ezinbestean eduki beharreko baliabide digitala direnez gero, nire lana Canvas LMSa aztertu, ezagutu eta EAEn erabili den LMSarekin, Moodlekin, konparaketa egitera bideratuko dut; horretarako, Canvas LMSan ikastaro eredu bat nola sortu daitekeen aztertuko dugu jarraian, konparaketa praktikako datuetan oinarrituta egiteko aukera eskainiko digularik.

Aurrera eraman dudan proiektu hau *Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin4.0*¹ Creative Commons lizentziapean argitaratuko dut. Lizentzia honekin edukia kopiatu, birbanatu eta erakustez gain, lan eratorriak (helburu komertzialekoak izan ezik) egiteko baimena ematen du. Ondorengoak derrigorrez beterik, edukiaren egilea aipatu beharra eta lan eratorriak, lizentzia berdina izan beharko dute.

¹ <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.eu>

2. KAPITULUA

2 Proiektuaren helburuak

Proiektu honen bidez horren garrantzi handia daukan LMS baliabide “ezezagun” batean oinarrituko gara, xede nagusiak hauek izango direlarik:

- Canvas LMSaren oinarritzko zehaztasun teorikoak ezagutzea, hala nola LMSak historian izandako garapena labur ezagutzea ere.
- Canvas LMSaren erabilgarritasuna aztertu eta praktikan jartzea, proba-ikastaro bat sortuz eta horren sarbide-gida laburra burutzea.
- Canvas LMSak eta Moodlek eskaintzen dituen ezaugarri zein aukera ezberdinen konparaketa egitea eta aldeko zein kontrako ezaugarrien alderaketa lortzea.

3. KAPITULUA

3 Metodologia

Aurreko helburu guztiak gauzatu ahal izateko metodologia teoriko-praktikoa izango da, alegia, marko teorikoa teorian oinarrituko delarik eta ikastaroaren proba egiterakoan praktikan murgilduko garelako batez ere. Horrela, marko teorikoa burutzeko, LMSen testuingurua, LMSen erabilera estatistikak eta datuak oinarri hartuta, metodologia teorikoa izango da. Batez ere, LMS ezberdinetako informazio ezberdina jasoz, web-orri zein artikuluetatik eta aurkezpenetatik jasotako informazioa erabiliz.

Aldiz, Canvasen ikastaro-eredu bat sortzen probatzerakoan, metodologia praktikoa izan da. Nahiz eta atal hau aurrera eramanez ahal izateko teorian ere oinarritu behar izan garen ikerketa lana burutuz, batez ere, arazoak edota errorean aurrean konponbidea lortzeko. Hauei aurre egiteko informazio iturriak, Canvaseko gidaliburuak izan dira gehienbat, hala nola Canvaseko *community*² eztabaida eta zalantza foroan egindako bilaketak ere, zein sareko beste foro ezberdinetan arituak egindako ekarpen eta galdera ezberdinetan oinarritu garen ere.

Bukaerako zereginari dagokionez, aurretik Moodle-en egindako ikastaroa orain Canvasen egiterakoan lortu ditugun datuekin alderaketa “objektiboa” egitea izango da, horretarako jasotako aukera eta ezaugarri ezberdinen azterketa burutu dugula.

² <https://community.canvaslms.com/>

4. KAPITULUA

4 Marko teorikoa

4.1 Zer dira LMSak?

Jarraitu aurretik garrantzitsua izan daiteke testuinguruaren kokapena egitea, horregatik LMSak zer diren azaltzera ekingo diogu. Software aplikazio, web zerbitzari bat euskarritzat duten (*web-based*) edota hodeian-oinarritutako (*cloud based*) ikaskuntza kudeatzeko sistemak dira, hauen bidez irakas-eduki digitala kudeatu, partekatu, ebaluatu, planteatu eta aurrera eramateko aukerak eskaintzen dituztenak eta rolen arabera esleitutako erabiltzaile ezberdinak edukirik. LMS akronimoaren hitzak nahiko erreferentzia argia egiten diote esanahiari:

- **L - Learning:** Ikastaroak era automatizatuan eskegitzeko plataformak, zeinean ikasleek 24/7 eskuragarri izango dituzten.
- **M - Management:** Ikastaroak antolatu eta zehaztasunez kudeatzeko aukera eskaintzen dutenak; ikasleen izen emateak kudeatzeko, zereginak gehitzeko edota gaien antolamendua moldatzeko aukerarekin planifikazioaren arabera, esate baterako.
- **S - System:** Atazen automatizazioa eskaintzen dutenak; datuak sisteman daudenez gero ikasleen ibilbide datuak, jarraikortasun zein ebaluazioen txostenak eskaintzeko aukera ematen duten heinean, adibidez.

Hasiera batean *e-learning* eredurako egokitu eta sortuak izan ziren arren, gaur egun *e-learning* (guztiz online den eredu), *b-learning* (aurrez-aurrekoa eta online uztartzen dituen) edota guztiz aurrez-aurrekoa den eredu baten euskarri digital bezala edukitzeko erabilgarriak dira, ikaskuntza eredu eta metodologia ezberdinetara egokitzeko aukera eskaintzen dutela da aipagarriena; ezin ahaztu ezinbestekoak direla ere MOOC-ak (*Massive Open Online Course*) abian jartzeko, alegia, online ikastaroak LMS batean dute abiapuntua ere. Gaur egungo LMSak gutxienez hiru rol/erabiltzaile

ezberdin banatuko dituzte, alde batetik LMSaren administratzailea(k) egongo dira sistema bera kudeatzeaz arduratuko direnak, ezarpen teknikoen konfigurazioaz arduratuz, bestalde irakasle rola dutenak egongo dira, zeinak ikastaroetako edukien kudeatzaileak izango diren; mota ezberdinetako eduki zein zereginak aukeratu, prestatu, diseinatu, sortu eta ikasleei helaraziko dizkietenak. Bukatzeko, ikaslearen rola izango genuke, ikasle baten kontutik ikastaroak aurrera eramango dituztenak, hala nola norbanakoaren kontu xehetasunak ezartzeko aukera ere edukiz; kasu batzuetan, gonbidatu rola ageri daiteke, edota irakasle diseinatzailea zein irakasle laguntzailea beste kasu batzuetan ere.

4.2 LMSeK eduki beharreko ezaugarri nagusiak

Jarraian, gaur egungo LMSak dituzten edota eduki beharreko ezaugarri nagusienak aztertuko ditugu:


- **Iristagarritasuna:** Erabiltzaileek nonahi, noiznahi eta nolannahi edukietara iristeko gai izan beharko lukete, nahi den gailutik sarbidea edukitzeko aukera dutela, bai smartphone, tablet edota ordenagailutik izan. Espazio sinkronian egoteko beharrik ez dagoenez murrizketa geografikoak desagertzen dira, ikastaroak erabiltzaile gehiagorentzat izateko aukera dute. Gainera, ikasleei beraien ikaskuntza-prozesuaren kontrola edukitzera bultzatuko zaie; autoerregulazioa ikastera, konstantzia edukitzera,... erritmo ezberdinak eramateko aukerarekin edota edukiak nahi bestetan kontsultatzeko aukera ere eskainita.
- **Interfaze erabilerraza:** Erabiltzaile interfazea intuitiboa, ikasleentzat nabigatzeko erreza izan beharko du; izan ere ikasleen ezagutza eta helburu teknologikoekin bat etorri beharko direnak, alegia. Garrantzia handia du honek erabiltzaileen adina kontutan izaten badugu, erabiltzaileak anitzak direlako; enpresa barneko ikastaroak jasotzen dituztenetik, unibertsitateko ikasleetatik igarota, oinarrizko hezkuntzarako ere bideratuta dauden heinean.
- **Analisi eta txostenak:** Irakasleentzat oso erabilgarriak izan daiteke erabiltzaileen txostenak jasotzeko aukera izatea, ikasleek duten jarraikortasuna aztertu edota ikasleen ebaluazio txostenak erraz eskuratu ahal izateko, adibidez, eta horrela ikastaroa ikasleen arabera moldatu ahal izateko edo ez; beti ere, ikasleen ongizatea bermatzeko helburuarekin. Aurrekoaz gain, ikasleei egokitutako ikas-ibilbidea sortzeko aukera handitzen da, erabiltzaile bakoitzak

dituen ezagutzen araberako ikas-ibilbide egokitua sortzeko aukera ere eskaintzen du honek.

- **Erabilgarritasuna estandarra eta automatizatua:** LMS ezberdinetatik edukiak galdu gabe migratu ahal izateko aukera eskaintzea ezinbestekoa edota edukiak berrerabiltzeko aukera, SCORM estandarrak erabilia. Irakasle taldeari denbora aurreztuko dion beste automatizazio bat, LMS barruan jorratutako ikastaroak, beste erabiltzaile talde batzuekin erabiltzeko aukera eskaintzea da, ikastaroari egokitzapenak egiteko aukera ere izanik.
- **Gamifikazioa eta formatu ezberdinak:** Bai LMSan integratuta edota txertatzeko aukera eskainita, gamifikazio formatuko edukiak gehitzeko aukera geroz eta garrantzitsuagoa da; ikasleen motibazioa eta atentzioa bereganatzeko aukera ezin hobea denez gero. Jolas formatuaz gainera, bideo, aurkezpen interaktibo, irudi interaktibo, galdetegiak,... bidez edukiak jorratzean ikasleen interesa handitzea lortuz eta honela, ikasketa prozesuaren arrakasta aukerak handitzen dira.
- **Komunikazioa:** Ikasle-irakasle zein ikasleen arteko komunikazioa sustatzen duten tresnak eduki behar ditu: mezularitza zerbitzua, txat-a, bideo deiak eta foroak sortzeko aukera (formalak edo/eta informalak). Hauen bidez, ikasle-irakasle komunikazio horizontala lortuko dugu eta ikasleek euren artean elkar-eragin eta elkar-ikasteko aukera izango dute, *per to per*, berdinen arteko ikaskuntza-prozesua sustatuz.
- **Ebaluagarria:** Eskola, enpresa edota irakasle bakoitzak zehaztuko du bere ikastaroan erabiliko den metodologia, baina LMS guztiek ebaluagarriak diren zereginak gehitzeko aukera eskaintzen dute. Horrela ebaluazio jarraitua egiteko erraztasunak eskainiz, hala nola elkarren arteko ebaluazioa egiteko edota ebaluatzeko erabiliko diren errubrikak sortzeko erraztasunak eskainita.

4.3 LMSen eboluzio eta historia laburtua

LMSak behar bezala zer diren ulertzeko hauen historia laburtura joko dugu, 4.1 irudiko denbora lerroan agerikoa denez aspaldian hasi ziren irakaskuntzarako hobekuntzak eskaintzen zituzten moldaketa/asmakizun teknologikoak erabiltzen.



4.1 Irudia - LMS-en historia laburtuaren denbora lerroa.

Infografiaren egilea: Joana Eslava - <https://time.graphics/line/512154>

Alegia, 1924. urtean hasi ziren Sidney L. Pressey-ren eskutik (Petrina, 2004) irakaskuntza berriztatuko zuten asmakizun teknologikoak, bera izan zen lehendabizikoa 'Teaching machine' deitutakoa sortzen. Bertan, aukera anitzeko galdetegiak egiteko aukera eskaintzen zuen, irakasleen erantzunak gordez ondoren emaitza emateko. Tartean beste garapen batzuk eman ziren arren, ez da 1960. hamarkada arte PLATOren sorrerari esker benetako garapena ematen; kolaborazioak, norberak bere erritmoa ikasteko aukera, erabiltzaileei euren garapenaren erakusgarria eskaintzen zien ere, eta zerbitzari barneko barne mezularitza eskaintzen lehendabizikoa izan zen. Aldiz, 90. hamarkada hasiera arte ez da lehenengo LMSa sortzen, online irakaskuntza sustatzeko nahian SoftArc-ek FIRST CLASS sortu zen; soilik Macintosh ordenagailuetan erabilgarria izatea murrizpen handia izan arren, Erresuma Batuetako Open University-k Europa osoan zehar online ikasketak eskaintzeko erabili zuen eredia izan zela da garrantzitsua.

Mendea bukatu aurretik beste bi garapen garrantzitsu eman ziren, alde batetik CourseInfo-ren 'Teaching Toolbox'a topatzen dugu, gaur egungo Blackboard LMSaren lehenengo bertsioa bilakatu zena (urte gutxira eman zen CourseInfo eta Blackboard-en arteko fusioa dela eta). Bestalde, 1999. urtean D2L (Desire2Learn)-ek garatutako LMSa hodeian-oinarritutako lehenengoan bilakatu zen, orain Brightspace by D2L izendapenez ezagutzen dugunaren aurreneko bertsioan, alegia.

2002. urtean MOODLE-en eskutik eman zen aurrera pausu handienetako bat, Martin Dougiamas-ek kode irekiko lehendabiziko LMSa sortu zuenean (Dougiamas, 2004); pribatizazioaren kontra eta zabalkundearen ongizaterako open source bertsioa kaleratu zuten eta, gainera honetan lehenengoz 3 erabiltzaile rol ezberdintzen dira;


kudeatzailea, irakaslea eta ikaslea. Urte batzuk beranduago, kode irekiko SAKAI/ LMSaren egitasmoa *Blackboard*en arrakasta eta Moodle hobetuko zituen LMS baten merkaturatzea izan zen.

Canvas LMSa 2010. urtean sustatu bazuten ere, ez zen hurrengo urtera arte izan open source bertsioa plazaratu zutenean. 2012. urtean ere MOOC formatua azaleratu zuten, “open on-line courses for every one”³ ideia aurrera eramanez.

Urte berdinean, *Open edX*ren sorrera etorri zen erakunde ezberdinentzat erabilgarria izan zitekeen irakaskuntza kudeatzeko sistema eskainiz, izan ere MOOC ikastaroak eskaintzen dituen baliabide bezala ezagunagoa izan den arren.

4.4 LMS erabilienak

Oraingoa erabilienak diren LMSei buruz hitz egiteko tartea hartu dugu, aurretik historian zehar aipatutako LMS berrien artean kokatzen dira gaur egun ere ezagunenak eta mundu mailan erabilienak direnak: *Blackboard*, *Brightspace* by D2L, *Sakai*, Moodle, *Open edX* eta Canvas, alegia. Hauetatik *Blackboard* eta D2L-en *Brightspace* kode irekikoak ez diren bakarrak ditugu, eta hurrengo grafikoan azterketa azkarra eginez mundu-eremu ezberdinen arabera LMS-en erabileraren konparaketa kuantitatiboak aztertuko ditugu, guztietan goi-mailako ikasketetan jasotako datuak oinarri izanda.




4.2 Irudia - 6 Year historical LMS Breakdowns by Region as Percentage of Total
 Egilea: www.educatechica.com

³ Our company story. <https://www.instructure.com/about/our-story>

4.2 irudi-grafikoan Estatu Batuetako, Kanadako, Erresuma Batuetako eta Australia herrialdeen erabileraren datuak agertzen dira, 2014. urtetik 2019. urtera arte.

Agerikoa da, Moodle-ek daukan garrantzia herrialde horietan, Estatu Batuetan izan ezik, Kanadan eta erresuma batuan LMS erabiltzaileen erdia Moodle erabili izan duela azkeneko urteotan. Aldiz, *Blackboard*ek izan duen garapena beherakoa izan da, urteak igaro ahala erabiltzaile kopurua galtzen joan dela agerikoa da, horren eragile nagusia Canvas-en sustapenak eragin du, Kanadan izan ezik beste guztietan; Kanadan besteetan gertatutakoari kontrajarriz *D2Lren Brightspace*-k eraman ditu *Blackboard*-ek galdutako erabiltzaileak.




4.3 Irudia - LMS Market Share For US & Canadian Higher Ed Institutions (year-end 2020 edition)

Berreskuratuta: Phil on EdTech <https://philonedtech.com/state-of-higher-ed-lms-market-for-us-and-canada-year-end-2020-edition/>

4.3 irudiko grafikoan 2020. urte bukaera arte EEBBetan eta Kanadan jasotako datuak hartzen ditu kontutan. Esan beharra dago, merkatu gehiena hiru LMSei hartzen dutela: Canvas, Moodle eta *Blackboard* (lehenengo biak kode irekikoak izanda, azkenekoa ordea pribatua). Adierazgarriena, *Blackboard* kopuruan beheraka egin duela aipatzea izango litzateke, batez ere murrizpen handiagorekin Moodle-ek bolumenik goren hartu zuenetik (2013-2014 urteetan) eta Canvasek hasieratik *in crescendo*, goraka izan duen erabiltzaile bolumena kontutan izanik. Hau horrela, erabiltzaile bolumenari dagokionez gorakako garapen argia duen bakarra Canvas da, batez ere 2011. urtetik kode irekiko bertsioa luzatu zutenetik.


Europar, ordea Canvasek izan duen eragina oso ezberdina izan da (4.4 irudia); 2016.urteko datuen arabera %1-ek soilik erabiltzen zuela, aldiz, Moodle-en poderioa ukazina da erabiltzaileen %65-ek aukeratuta. Honetaz gain, 4.5 irudiko grafikoan



4.4 Irudia - LMS Distribution (Fall 2016) Percentage of European Higher Ed Institutions Usind Each LMS as Primary System
Egilea: e- literate & LISTedTECH

urtero ematen diren implementazio berrien datuak agertzen dira, Moodlek izandako eboluzioari erreparatuta azkeneko 8 urteetan nahiko egonkor mantendu den arren, azken urteetan implementazio berrietan izan duen joera, beherakoa izan da nabarmen. Kontrakoa aldiz Canvas-ek izan duena, nahiz eta erabiltzaile bolumena kontutan izaten badugu Moodle erabilienaren saria jasotzen jarraituko duen.

Eguneratzeen datu grafikorik ez dagoen arren, Cristian T. Duque-k (2016-2020 berrikusita) artikuluan dionez *“Moodle’s share remains in optimal shape, but its future dominance could be in question”*.



4.5 Irudia - Percentage of New LMS implementations by Year in Europe
Egilea: e-Literate & LISTedTECH

4.5 Instructure Canvas LMS



4.6 Irudia - Canvas LMSaren logoa

2008. urtean sortutako *Instructure Inc.*⁴ enpresak ikasketa plataforma propioa sortzea erabaki zuen, 2010.urtean *Canvas by Instructure* Utah estatuko ikastetxe askotan erabiltzen zutelarik, hodeian-oinarritutako eta beraiek kudeatutako sistema zen; honela ikastetxeak soilik irakasteaz arduratu behar zutelarik (ordainpekoa). 2011.urtean Canvas LMSaren kaleratze ofiziala egin zen eta hura AGPLv3 lizentziapean⁵ plazaratu ere, kode ireki komertzial ("*commercial open source*", Stein J.) moduan kaleratzeko enpresaren hiru arrazoi nagusiak hurrengokoak direla:

- Hezkuntza eragileei Canvas-ek kudeatutako ordainpeko kontua izatea merezi zaien edo ez jabetzea; alegia, egituraren laguntza, mantenu lanak, kudeaketa bera, bertsio berritzeak egiteko beharrik ez izatea, ... ordainpekoa izatea merezi duen edo aldiz, bakoitzak egin beharreko kudeaketa lana izatea.
- Canvas LMSaren segurtasuna eta kodearen osotasuna bermatzeko modu adierazgarriena bezala eskaintzen dute, kodeak eduki ditzakeen ahuleziak antzematen laguntzeko.
- Eta guretzat garrantzitsuena den arrazoia, beraiek kudeatu ezin dituzten eremuetan (Amazon Web Services, AWS zerbitzu gabekoak, alegia zerbitzari zerbitzurik gabeko eremuak) edota ordainpeko eredua edukitzeko diru nahikorik ez duten eskola, instituzio edota enpresek ere merkatuan dagoen LMSa edukitzeko aukera izatea da.

Azken urteetan erabiltzaile hazkunde eta inplementazio gehien eduki dituen LMS izan da, edukitako arrakastaren adierazle mundu osoan zehar 2019. urtera arte lortutako 30 milioi⁶ erabiltzaile baino gehiago dira. Arrakasta horren aipagarri nagusia bere itxura dela esan daiteke, Canvas-ek duen interfaze grafikoa merkatuan daudenen artekoen erakargarriena da eta. Eskaintzen duen erabilgarritasun erraza eta intuitiboa ere aipagarriak direla esan dezakegu, irisgarritasunari erreparatuz gero ere, eskaintza zabala ematen du; alde batetik internet konexioa dagoen edonondik eta edozein gailutik (sakelako, tablet edota ordenagailua izanda) sartzeko aukera izango dugu, eta bestetik, eskaintzen dituen mugikorretarako aplikazioa⁷ ezberdinak ditugu.

⁴ <http://www.instructure.com>

⁵ <https://github.com/instructure/canvas-lms/wiki>

⁶ <https://www.instructure.com/about/our-story>

⁷ <https://canvas.instructure.com/courses/1045977/pages/canvas-apps>

Irakasleentzat, ikasleentzat edota gurasoentzat ezberdinak diren den mugikorretako aplikazioak topa ditzakegu, lehenengoarekin eduki eta ikastaroen kudeaketa ahalbidetzea izango da helburu, bigarrenarekin ordea, ikastaroak aurrera ateratzeko eskaintza zabalduko du eta hirugarrenarekin aldiz, seme-alaben ikasketa-prozesuaren berri edozein momentutan eta etengabe izateko pentsatuta dago. Aurrekoari gehituta, *LTI (Learning Tool Interoperability)* aukera sorta integratzeko eskaintza oso erakargarria da, baita SCORM paketeen inportazioa eta esportazioa, ezinbestekoak suertatzen dira eta gaur egungo LMStan.

Canvasen funtzionamendua ezagutzeko aukera ezberdinak eskaintzen ditu *Instructure* enpresak, dohainekoak gainera:

1. *Canvas Free for Teachers*⁸ kontua egiteko aukera, bertan ikastaro probak egin ahal izateaz gain LMSaren funtzionamendua ezagutzeko aukera eskaintzen du. Beraiek kudeatutako *cloud based*-en, dohaineko aukera izanda eta murrizketak dituen arren (ikus bibliografian *canvas account comparisons*), probatzeko egokia izan daiteke.
2. Gure zerbitzarian open source bertsioa inplementatzekotan, *GitHub*-en kodea eta instalatzeko gida ere topa ditzakegu.


⁸ Free for Teacher-en izena emateko <https://www.instructure.com/canvas/try-canvas>

5. KAPITULUA

5 Moodlen egindako ikastaroa

Canvas eta Moodle-n arteko ezberdintasunak modu praktikoan ezagutzea prozedura egokia iruditu zaigu, bietan probatuz alegia, horretarako Moodle-n egindako ikastaro bat Canvas-en nola klonatuko genukeen erakutsiz.

HEZIKt-ko lehenengo moduluko azken produkturako zein Juanan Pereirak emandako “LMSak aztertzen” ikasgaien Moodle-ko ikastaro eredu bat nola sortu genezake ikasi genuen, hauek izanda Moodlen jarduteko ikasitakoak:




5.1 Irudia - Moodle ikastaroa sortzen

- **Ikastaroa sortu** (5.1 irudia): (1) Ezker menuan kokatuta dagoen *gurearen kudeaketa* atalaren barruan, (2) ikastaroa sortu genuen, bertan (3) ikusgarritasuna eta ezarpenak zehazteko aukera edukita.
- **Ikastaroaren ezarpen nagusiak zehaztu** (5.2 irudia): Jarraian sortutako ikastaroaren (1) izena, izen laburtua, datak, ikastaroa erakutsi (edo ezkutuan mantendu), ikastaroaren deskribapenean (2) azaleko irudia gehitu eta ikastaroaren laburpen txiki bat sortu ondoren, formatua (3), itxura (4), fitxategien gehienezko tamaina (5) eta ikastaroaren osaketaren jarraipena (6) zehazteko aukera ahalbidetu genituen.
- **Ikasleak gehitu**: Ikasleak gehitzeko ezker zutabeko *partaideak* atalean egin behar da, dagoeneko plataforman dauden erabiltzaileetatik aukeratuta, gure ikastarora gehitzeko beharrik besterik ez dagoela. Talde txikietan lanketak

egiteko aukera ere edukiko dugunez, (7) ikastaroen ezarpenetan taldekatzei buruzko atala zehazteko aukera ere eskaintzen dute.

5.2 Irudia - Moodle ikastaroaren ezarpenak


- **Foro ezberdinak gehitzen:** Alde batetik, berrien foro (ohar-aula balitz bezala) bereziak ikasleen erantzuna onartzen ez dituztenak alegia, eta bestalde ikasleen arteko eztabaidak, zalantzak edota irakaslearekin komunikatzeko erabiliak izango direnak sortzeko aukera izan genuen.
- **Ikastaroko gai nagusiaren konfigurazioa:** Orokorra izenpeko atalaren konfigurazioa egin genuen; atalaren izen aldatu, argazki edo irudia gehitzeko aukera zein eskuragarritasun murrizketak ezartzeko aukera edukita (1), ikasleentzat erabilgarriak izan daitezkeen ohar-aula, berrien (3) edo zalantza foroen,... edizio aukera eskaintzen ditu baita informazio iturri bezala erabilgarria izan dakizkiekeen helbide elektronikoaren URL-a gehituta, edota beste edozein jardura edo baliabide gehitzeko (2) aukera ere ematen duela.



5.3 Irudia - Moodle ikastaroko hasierako atala

Aurrekoarekin lotuta, ondoren ikastaroko modulu/ gai ezberdinak konfiguratzeko joan ginen. Bakoitzean jarduera edota baliabide ezberdinak gehitu behar genituelarik.

- **Moodle-n jarduera mota ezberdinak aztertzen** (5.4 irudia): Jarduera eta baliabide mota ezberdinak oso zabalak izanagatik, hurrengoak aztertzen aritu ginen gu: Fitxategia, foroak, galdetegiak, glosarioa, liburuak, orriak, URL-k gehitzeko hala nola zereginak esleitzeko ere.
 - Baliabideak, irakasleak edukiak sortu/eskegitzeko erabiliko dituenak izango dira, fitxategia, liburua, orria eta URLa, izango ditugu. Hauetan fitxategi bat txertatu, bertan edukiak idatziz osatu edota kanpo aplikazioa batetik txertatzeko aukera eskaintzen du.



5.4 Irudia - Moodle ikastaroetako baliabide eta jarduerak

- Bestalde ikasleak egin beharreko jarduerak ditugu; galdetegia, foroa, glosarioa eta zereginak aztertu ditugula. Galdetegiak, mota ezberdinetako galderen bidezko galdetegiak sortzeko aukera eskaintzen dute; aukera anitzek, egia/gezurra, erantzun laburreko galderak edo lotura galderak nahastuz besteak beste. Glosarioa eta foroak ordea, guztion arten ikasteko aukera paregabea eskaintzen dute, guztiok-guztiogandik ikasteko alegia. Zereginei dagokionez, ikasleak bertan entregatu beharreko fitxategi mota zehazteko aukera eskaintzen du (dokumentu fitxategiak, kalkulu-orriak, bideoak, aurkezpenak,...), hala nola hauen gehienezko tamaina zein taldeka osatzeko aukeraren zehaztapena ere, taldeko partaide batek soilik bidaltzearekin nahikoa izango litzatekeela kasu horretan. Ezinbestean ere, ikasleentzat bideratutako jardueren ezarpenetan feedbacka nola eskainiko

dugun zehazteak izugarrizko garrantzia eduki dezake, izan ere irakasleek modu batean edo bestean ikasleari eskaini beharko dion ezarpenaren aurrean gaude eta.

Guzti hauetan zein atal nagusien ezarpenetan ere, **eskuragarritasuna zehazteko** aukerak aztertu genituen, jarduera(k) eskuragarri egongo den epe tartea zehazteko balio duena da. Honekin batera zehaztu beharreko beste ezaugarri bat, **jardueren osaketa** izango litzateke eskaintzen dituen zehaztasun aukera ezberdinekin; ikasleak osaketa eskuz markatzeko aukera, ikasleak ikustearekin soilik automatikoki markatzen dela, edota gainditu beharreko aukeraz baliatzea, irakasleak kalifikazioa esleitzerakoan edo galdetegietan, automatikoki markatuko da jarduera osatutzat. Azkeneko puntu hau behar bezala osatzeko, kalifikazioaren ezarpenak zehaztuta egon beharko dira, bai gehienezko kalifikazioa zein gainditzeko gutxienez lortu beharrekoa, adibidez. Propio landu genuen beste ezarpen interesgarri bat, **baldintzako zereginen** aukera izan zen: irakasleak aukeratutako baldintza(k) bete ezean eduki/jarduerak eskuragarritasun murriztuarekin zehaztuta egongo dira. Irakasleak, dataren arabera, jardueren-osaketaren arabera, kalifikazioaren arabera, talde zehatz batentzat eskuragarri soilik edota baldintza-sortaren bidezko baldintzak sortu ditzake nahi adina eduki, jarduera edota ataletara sarbidea mugatzeko; behin irakasleak gehitutako baldintzak betetzerakoan automatikoki izango dituzte eskuragarri.



Gehitu baldintza...	
Jarduera-osaketa	Behartu ikasleak beste jarduera bat osatzera (edo ez osatzera).
Data	Galarazi sarbidea data eta ordu zehatz bati aurrera (edo batera arte).
Kalifikazioa	Behartu ikasleak kalifikazio zehatz bat lortzera.
Taldea	Baimendu talde bateko ikasleei soilik edo talde guztiei.
Erabiltzaile-profila	Ikasleen profilaren eremuen arabera sarbide-kontrola.
Baldintza-sorta	Gehitu habaraturako baldintza-multzo bat logika konplexua erabiltzeko.
Utzi	

5.5 Irudia - Moodle baldintzako jarduerak

- Gaur egun ikasketa-prozesuan horren garrantzitsua den ikasleen motibazioa sustatzeko oso erabilgarria den ezarpena dugu Moodle-k eskaintzen duen dominen esleipena (5.6 irudia) , gamifikazioa oinarri izanda zehaztu beharreko baldintzak betetzerakoan ikasleei esleituiko zaizkien dominak dira; esleipen automatikokoak izan daitezke (1), zeregin bat edo batzuk osatzerakoan adib., edo irakasleek “eskuz” (pertsonalki) esleitu ditzaketenak (2), lanaren egokitasun/ originaltasunaren arabera esleitu daitezkeenak, alegia.

Gizakia mugimenduan: Dominak

Eskura daitekeen domina-kopurua: 2

Irudia	Izena	Deskribapena	Irizpidea	Niri emandakoa
	TEAM WORK DONE!	Taldekako lanek bikain ari zarete erantzuten!!	<p>1 Erabiltzaileei domina hau zerrendako EDOZEIN baldintza betetzean emango zaie.</p> <ul style="list-style-type: none"> Ondorengo jardueretatik GUZTIAK osatu dira: <ul style="list-style-type: none"> "Zeregina - Hezurrak kiroletan" "Zeregina - Jarrera- giharrak" Ondorengo rola duen erabiltzaileak eman behar du domina hau: <ul style="list-style-type: none"> Irakaslea 	
	BRILLIANT IDEA!!	Idea originalenarentzat!!!	<p>2 Ondorengo baldintza betetzen dutenean emango zaie ikasleei domina hau:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ondorengo rola duen erabiltzaileak eman behar du domina hau: <ul style="list-style-type: none"> Irakaslea 	

Kudeatu dominak Gehitu domina berria

5.6 Irudia - Moodle ikastaroetan dominak ezartzen

- Bukatzeko, ikastaroaren **kalifikazio liburuak** dituen zehaztapen orokorrak kontutan izango ditugu, garrantzia handiko ezarpena delako; nahiz eta guk ikastaroan propio lantzeko denborarik ez izan. Kalifikazio-liburuari dagokionez jarduera ebaluagarri bakoitzari dagokion pisua esleitzeko aukera eskainiko digu (1) ezarpenetan sartuz gero, honek ikasle/talde bakoitzaren edo ikasle guztien kalifikazioak ikusgai edukitzeko aukera eskainiko digula, baita kalifikazio-liburuak inportatu eta esportatzeko (2) aukera izatea ere oso garrantzitsua da; .csv, excel-orri edo XML formatuetan jaitsi edo igo daitezkeenak.

Kalifikazio-liburuaren ezarpenak

Ikusi Ezarpenak Estakak Letrak Inportatu Esperatu

Kalifikazio-liburuaren ezarpenak Ikastaroaren kalifikazioen ezarpenak Hobespenak Kalifikaziole-tostena

Izena	Pisua 0	Gehienezko kalifikazioa	Ekintzak
<ul style="list-style-type: none"> Gizakia mugimenduan <ul style="list-style-type: none"> Proektua- Harreman funtzioak kiroletan 23,50 100,00 Editatu Zer dakigu hezur sistemari buruz? 4,702 6,00 Editatu Girkadura motak 11,28 100,00 Editatu Hezurrak kiroletan 11,28 100,00 Editatu Jarrera- giharrak 11,28 100,00 Editatu Gihar sistema 4,702 8,00 Editatu Giharren mugimenduak kiroletan 11,28 100,00 Editatu Zentzumak kiroletan 11,28 100,00 Editatu Nerbio-sistema 1,579 10,00 Editatu Partehartzea 9,091 100,00 Editatu Ikastaroan guztira 724,00 Editatu 			

Berriro bidatzak

Gehitu kalifikazio-elementua Gehitu kategoria

5.7 Irudia - Moodle ikastaroen kalifikazio-liburua


6. KAPITULUA

6 Canvas LMSan ikastaroa sortzeko gida-laburra

Oraingoa, *Instructure Inc.* enpresaren Canvas LMSaren kode irekiko bertsioa ikasten.io⁹ zerbitzarian instalatu ondoren ikastaroak nola sortu aztertzen jardun gara, beti ere irakasle rol eta ikuspuntutik begiratuta eta azalduta. Canvas LMSan oinarritzko ikastaroa sortzeko jarraitu beharreko pausuak (Moodlen egindakoak), eskainitako aukera eta ezarpen ezberdinen azterketarekin hurrengo gidaliburua sortu dugu: Behin instalazioa bukatuta eta administrari kontua izanda, hizkuntza konfigurazioa euskaraz ezartzen saiatu gara. Baina tamalez, erabilgarri ez dagoen hizkuntza denez gero, gaztelerako hizkuntz konfigurazioa erabili dugu praktika probak aurrera eramateko; hau dela eta, gida-liburuko irudietan izenburuak gazteleraz agertzen dira.

6.1 Lehenengo pantaila


Behin sartuta, topatzen dugun lehenengo pantailaren azalpen laburra egingo dugu hasteko, 6.1 irudiarekin lagunduta. Hasierako orrian, tablero edo *dashboard* izenpean, sortutako ikastaro ezberdinetatik nahi ditugunak gehitu ditzakegu erdiko atal/bloke nagusian; gure arbelean agertzeko hautatuak izan diren ikastaroak bakarrik erakutsiz. Eskuin aldean hurrengo egunetan entregatu beharreko jarduerak agertzen zaizkigu. Eta ezker aldeko zutabeko menua, momentu oro ikusgarri edukiko ditugun zenbait atal topa ditzakegu:



6.1 Irudia - Canvas LMSaren arbela

⁹ Hurrengoko helbidean: <https://canvas.ikasten.io>

①: **Kontuaren** ezarpena aldatzeko gunea topatzen dugu, bertan jaso nahiko ditugun notifikazioen ezarpenak zehazteko aukera izango dugu; mezu, jardueren zehaztaperen ezberdinak, taldeen osaketen, foroetako,... ezarpenei dagozkion notifikazioak zehazteko 4 aukera eskaintzen ditu (momentuan notifikatzeko, eguneko notifikazio guztiekin notifikazio bakarra, asteko notifikazio guztiak batera edota notifikaziorik ez jasotzeko aukerak). Bestalde ikastarora igotako fitxategi guztiak eskuratzeko aukera ere eskaintzen du, *archivo* atalean, ikastaro bakoitzera igotako fitxategi ezberdin guztiak eskuragarri izateko. Kontuaren konfigurazio ezarpenak zehazteko ere aukera eskaintzen duelarik, hala nola e-portfolioa sortu eta kudeatzeko aukera ere.




6.2 Irudia - Canvas LMSaren administratzaile kontuaren zenbait ezarpen

②: **Admin** atala (6.2 irudikoa), administratzaile kontua edo baimena dutenak soilik edukiko dute atal honetara sarbidea, bertan kontuaren barruan dauden ikastaro ezberdinak kudeatzeko, erabiltzaileak gehitzeko, estatistikak, errubriken, kalifikazio, kompetentziak, estiloa,... ezarpen eta kontuaren kudeaketa ezberdin guztiak atal honetatik egin behar izatea ahalbidetzen du, baita ikastaro berria gehitzeko aukera ere (+ *curso*, ikurretik abiatuta). Ikastaroei dagokionez begi bistan lagungarria gerta dakiguken zenbait informazio eskaintzen digu, ikusgarri al dagoen, ikaslerik al daukan, irakaslea zein den, zein konturen barruan kudeatzen den, ikasleak ikastarora zuzenean gehitzeko aukera (①), ikastaroko estatistika (②) eta ikastaro horren ezaugarrietara jotzeko aukera (③), hala nola ikastaroaren SIS (*Student Information Systems*) identifikatzailea erakusten duela. SIS-ak ikasleen informazioaz arduratzen diren softwareak dira, ikasleen informazio guztia gordetzeaz arduratzen direlarik (zereginen ekarpenak, edukietara sarbide kopurua, datu pertsonalak, datu ekonomikoak,...) eta gaur egun LMSetan ikasle datuen babes eta kudeaketaz arduratuko sistemen integrazioa ahalbidetzea ezinbestekoa da.

③: **Kurtso** atalean sortutako ikastaro ezberdinak ikuskatzeko aukeraz gain, arbelean agertuko direnak zehaztuko ditugu bertan eta ikastaro batean klikatuz gero, ikastaro horretara eramango gaitu; ikastaroa ikusi edota kudeatzeko aukerarekin.

④: **Egutegiari** dagokionez, aukeratutako ikastaro ezberdinetako zereginen epe mugak agertuko zaizkigu, hala nola gertaerak, eginbeharrak edota zuzenean egutegian bertan zeregin berriak gehitzeko aukera eskaintzen du.

⑤: Bukatzeko, **barne mezularitza zerbitzuaren sarrera-ontzirako** sarbidea dugu, bertan jasotako zein bidalitako mezu guztiak agertzen zaizkigula. Bidalketa aukerak oso zabalak dira, jasotzailearen izena (jasotzaile bakarra edo jasotzaile asko) jartzeaz aparte errazagoa den aukera ahalbidetzen du, talde zehatz bati mezua helarazteko aukera eskainiz, alegia. Hasteko, jasotzaileak ikastaroen arabera (①) sailka daitezke, ondoren ikastaro horren zein rolekoei bidaltzeko aukera zehaztu daitekeela (②), gainera talde/rol ezberdinetako pertsona multzoei (guztiei bidalita) bidaltzeko aukera ere egonda. Gainera, mezuetan fitxategiak (③) atxikitzeko aukera ere dagoela.




6.3 Irudia - Canvas LMSaren barne mezularitza

⑥: **Canvas** ikurra sakatzerakoan, edozein karpetan gaudelarik hasiera orrira bideratzen gaitu.

6.2 Ikastaroa sortzen

Goiko testuingurua ezagututa, hurrengoko pausua ikastaroak nola sortzen diren ezagutzea da; horretarako, 2 modu eskaintzen dizkigu. Alde batetik arbela ataletik egin daiteke, 6.4 irudiko ① aukerak erakusten duen bezala, eskuinaldeko blokean kokatuta dagoen *comenzar un nuevo curso*-tik edota ② aukerak adierazten duen bezala, ikastaroak atalean -> ikastaro guztiak aukeratu ondoren agertzen den *+curso* erabilita sortu daiteke ikastaro berria. Hasiera batean, izena eta zein lizentziapean argitaratuko den adieraztea besterik ez da beharrezkoa, ezaugarri zehatzagoen ezarpen sakonak geroago azalduko dugularik, aurretik ikastaroa sortuta agertzen den lehenengo pantailaren azalpen azkarrari ekingo diogu.




6.4 Irudia - Canvas LMSan ikastaroak sortzeko bi aukerak

3 atal nagusi bereiz ditzakegu pantailan ikastaroa sortzerakoan (6.5 irudia lagungarri), esker aldeko menua, erdian kokatzen den atal nagusia eta eskuin aldeko gehigarriak.

1: Ezker aldeko menua, ikastaroan erabilgarriak izan daitezkeen baliabide

ezberdinak eskaintzen dira; hasierako orria, berriak, zereginak, foroak, kalifikazioak, parte hartzaileak, orriak, fitxategiak, galdetegi/azterketak,... besteak beste. Baliabide edo atal motaren arabera, ikastaroan zehar egingo diren zeregin, elkarrizketa foroak, berriak edo parte hartzaileak (adib.) ikusteko aukera eskaintzen du.

2: Atal nagusian, ikastaroko moduluak ezarriko ditugu, hala nola horien barruan zereginak, lanketarako erabilgarriak izango diren edukiak; ikastaroa bera kokatzen den lekua dela esan daiteke, bertan banan banan sortzen joandakoak izan daitezke edota SCORM estandarra jarraitzen duten edukiak igotzeko aukera eskaintzen du.



6.5 Irudia - Canvas ikastaroaren sortzen

3: **Eskuin aldeko aukerak**, erabiltzaile rolaeren arabera erabilgarriak izan daitezkeen aukeraz ahalbidetzen dira, irakasleen kasuan; ikastaroaren ikusgarritasuna agertzen da, ezkutuan dagoena, baina ikusgarri jartzeko edo aldatzeko aukera eskainiz, hasierako orrialdea hautatzeko aukera emanez, berri (ohar-taula) bat sortzeko aukera, ikasleei mezu garrantzitsu bat helarazteko oso baliagarria izan daitekeena, hurrengo asterako egin beharrekoen egutegia erakusten duela ere.

6.2.1 Ikastaro ezarpenak

Oraingoan ikastaro bakoitzaren ezarpen sakonen zehazpena egitera ekingo diogu, ikastaroaren izena baino gehiago zehaztu behar denez gero; hemen ezkerreko menuko ezarpenak atalean sartuta topatzen duguna.

The screenshot shows the 'Mat 101' course settings page. The left sidebar contains navigation links like 'Inicio', 'Anuncios', 'Tareas', 'Foros de discusión', 'Calificaciones', 'Personas', 'Páginas', 'Archivos', 'Programa del curso', 'Competencias', 'Rubricas', 'Evaluaciones', 'Módulos', 'Colaboraciones', 'Google Drive', and 'Configuraciones'. The main content area is titled 'Detalles del curso' and includes fields for 'Nombre' (Arithmetica), 'Código del curso' (Mat 101), 'Curso Planilla' (Madrid (H01.000+H02.00)), 'Zona horaria' (Mat 101), 'Identificación del SIS' (Mat 101), 'Subcuenta' (StudentID), and 'Periodo' (Predeterminado). Below these are sections for 'Almacenamiento de archivo' (File Storage) with 'Esquema de Calificación' (Grading Scheme) and 'Derechos de autor del archivo' (File Copyright), 'Licencia' (License) with 'Atribución no comencia', 'Visibilidad' (Visibility) with 'Curso' and 'Personalizar', and 'Formato' (Format) with 'No establecido'. The 'Descripción' field is empty. The right sidebar shows 'Usuarios actuales' (Current Users) with a table listing roles and counts.

6.6 Irudia - Canvas ikastaroko ezarpenak

1: Lehenengo zatian, ikastaroaren izena, kodea, SIS identifikadorea, zein konturen barruan kokatzen den, eta ikastaroaren luzera mugatua den edo ez zehaztea eskatzen da.

2: Data zehatzak ezartzeko aukera, noiz hasi eta bukatzen den ikastaroa alegia, eta ikasleak datetatik kanpo eskuragarri izango duten ikastaroa zehazteko aukera ere.

3: Kalifikazio eredu zehazteko aukera ahalbidetzen du, bikain izango da %90<100%ra bitartean, edo 0%<%50 bitarteko kalifikazioak ez nahiko izango direla

zehazteko balio duten kalifikazio eskemak egin eta erabiltzeko aukera. Baita ikastaroak edukiko duen lizentzia zehaztea eta honetan igotako fitxategi guztien autoren baimenak edo lizentziak ezartzea derrigorrezkoa izatea ikusgarri egin edo entregatu aurretik.

④: Ikusgarritasunari dagokionez, ikastaroko pertsonentzat, erakunde/ikastetxe osoarentzat edota ikastaroaren URLa duen edonorentzat ikusgarri ezartzeko aukerak ditu.

⑤: Formatu atalean, gure ikastaroa zein hezkuntza-eredu mota eskaintzeko bideratuta egongo den zehazteko aukera eskaintzen du; online, *b-learning* edo aurrez-aurreko eredurako den.

⑥: *Aukera gehiago* dion horretan, hasierako orrian zenbat berri agertuko diren zehaztuko da, foroetan fitxategiak atxikitzeko aukera zehaztea, erabiltzaileek foroak sortu ditzaketen edo ez zehaztuko da, foroetan gehitutako ezabatu edo editatzeko baimena esleitzea, ikasleei taldeak osatzeko aukera eskaintzea, ... dira bertan zehaztu daitezkeenak.

⑦: Ikastaroaren ikusgarritasuna adierazten duen ikurra, kasu honetan ezkutuan dagoena; publikatu gabe, alegia.


⑧: Irakaslearentzat erabilgarriak izan daitezkeen beste aukerak agertzen dira, edukiak inportatu edo esportatzeko, ikastaroa borratu, bukatzeko, egutegia ikuskatzeko, estatistikak ikusi, edota ikasle ikuspuntutik aurre bistaratzeko aukera, besteak beste.

⑨: Hemen, ikastaro baten barruan gehitu daitezkeen ikastalde ezberdinak kokatu daitezke; ikastaro berdina ikasmaita berdineko ikastalde ezberdinei helarazteko aukera eskaintzen du. Adib. L.H. 6.mailan dauden 2 lerroentzat erabilgarria izan daitezkeen ikastaroa jorratzea, alegia, 6.A zein 6.B ikasgelakoak zehazteko erabilita.

6.2.2 Ikastaroaren lehen orriaren konfigurazioa

Canvas LMSak ikastaroen hasierako orria ezartzeko aukera eskaintzen du, hau ikastarora sartzerakoan agertuko zaigun **lehenengo orrialdea**, informazio orrialdea izanik. Honetan, ikastaroaren azkeneko berri-foroak (②), alegia, ohar-taula bezala erabiliko dena agertzeaz gain, guk aukeratutako/sortutako (①) beste hasiera-orria ezarri dezakegu ere: sortutako moduluak agertzeko, parte hartzaileen artean edukitako elkarrizketa ezberdin guztiak agertzeko aukera, egin beharreko zereginak, ikastaroaren programazioa edota adibiderako sortutako informazio orria (③), erabilgarria izan


daitekeen webgunearen esteka eskainiz edota ikastaroari sarrera emateko erabilia. Hau lehen orri bezala ezarri ahal izateko, aurretik paginas/ orriak atalean sortzeko eskatzen digula.



6.7 Irudia - Canvas ikastaroko lehenngo orriaren konfigurazioa

6.2.3 Orriak

Orriak atala (1), edukiak sortzeko aukera eskaintzen duen baliabidea da, testu libre, irudiak, bideoak edota kanpo baliabideak txertatzeko aukera eskaintzen duen baliabidea izanda. Kasu honetan informazio lehen orri bezala edukitzeko konfiguratu dugu: *paginas* ataleko goi-eskuin aldean topa dezakegun *+paginatik* abiatuta hurrengoko ezarpenak topatzen ditugu.




6.8 Irudia - Canvas ikastaroko orriak baliabidea

Behin orri berria gehituta, orriari izena jarriko diogu (2), ondoren atal nagusiari ekiteko oso erabilgarria eta osatua den *Rich Text editor*-ek (3) eskaintzen dituen aukera ezberdinak baliatuz edozein motako testua sortu daiteke, irudi, ekuazio, taula, bideo,

edo kanpo URLetara bideratutako estekak txertatuz, hala nola HTML edizio moduan jartzeko aukera ere dagoenez, kanpo baliabideen kodeak itsatsiz txertatzeko aukera ere baliatu dugu, (4) kasu honetan hasierako azalpen bezala erabilgarria den aurkezpen bat txertatuz. Eskuin aldeko blokean (5), beste barne baliabide batera joateko esteka gehitzeaz gain, argazkiak (*Flickr*-etik igotzeko) edota aurretik fitxategietara igotako beste mota bateko dokumentu, irudi zein bideo txertatzeko aukera ere eskaintzen du. Bukatzeko, orri hau editatzeko baimenak kudeatzeko aukera daukagu (6).

6.2.4 Berriak

Ondoren, ongi etorria emateko baliagarria eta aldi berean ikastaroan zehar suertatutako oharrak helarazteko berriak/anuncios deritzona erabiliko dugu, hauetariko azkenekoak, alegia, berrienak ikastaroko lehen orrian agertuko dira; ikasleek azken berrien jabe izateko.




6.9 Irudia - Canvas ikastaroan berriak/oharrak sortzen

Berrien atalean (1) **+Anuncio** sakatuta berria sortzeko aukera izango dugu, bertan izenburua, testua idazteko koadroa, atal zein baliabide guztietan bezala erabilgarria izango dugun *Rich Text Editor* erabilgarri edukita, nahi dugun mezua helaraziko diegu ikasleei, testu, irudi, bideo edota fitxategiak eskegitzeko aukera eskuragarri dugula ere. Ikastaroko zein sekziori (edo guztiei) helaraztea nahi dugun zehaztu dezakegu, hala nola etorkizuneko data zehatz batean publikatzeko programatzeko aukera, ikasleei erantzuteko gaitasuna ematea edo “gustuko dut” klik egiteko aukera izateko ezarpenak zehaztu daitezke.

6.2.5 Moduluak


Egingo dugun hurrengo gauza moduluak sortzea izango da, modulu bat unitate bati, aste bati,... egokituko zaiolarik; galdetegiak, lanketa edukiak, zereginak edota foroak edukita, besteak beste.



6.10 Irudia - Canvas ikastaroan moduluak sortzen

Moduluak ataletik + *Modulo*-n (1) sartu eta bertan moduluari dagokion (2) izena jarri eta nahi izanez gero data zehatz batera arte blokeatuta egoteko aukera, eskuragarritasunari dagokionez (3) aurreko moduluak osatuta egon ezean sarbidea blokeatuta egotea zehaztu daitezke.

Behin sortuta, 6.11 irudian agerikoa denez, (1) ikusgarritasunari dagokion ikurra agertzen zaigu, berdez dagoenean publikatuta dagoela esan nahi duela. (2) moduluak editatu, lekuz aldatzeko, ezabatzeko aukera eskaintzen digu eta ikastaroa osatzen jarraitzeko garrantzitsuena zaigun ikurra (3)-ari dagokio, moduluari jarduera edo baliabideak gehitzeko erabiliko delarik; zereginak, azterketak edo galdetegiak, orriak (dagoeneko nola sortu daitezkeen azaldu dugula), fitxategiak, URLak, kanpo baliabideak edo foroak aukeratuz sortuko ditugu.




6.11 Irudia - Canvas ikastaroko jarduerak eta baliabideak

6.2.6 Foroak

Modulua gehitu ondoren, ikasleen arteko elkarreragina eta irakasle - ikasleen arteko komunikazioa erraztuko duten elkarrizketa foroak ezartzen ikasiko dugu; hauek, zalantzetarako erabiliak edota “formalak” izan daitezke, zereginen erantzuteko erabiliak izan daitezkeela.


Foro baliabidean klikatuz gero, gai berria sartu eta foro berri honi dagokion izena gehituko diogu. Foroa moduluaren barruan agertzen zaigula eskuinaldean publikatzeko eta edizio ezberdinak egiteko aukera eskaintzeaz gain, foro izenburuan klik eginda, forora helbideratzen gaitu ezkerreko menuko eztabaida foroen barnera, alegia. Hemendik lehenengo mezua (1), eztabaida zabaldu nahi izanez gero, bidaltzeko aukera, fitxategiak eransteko aukera eta ikastaro osoko ikasleei bideratuta dagoen edo sekzioaren arabeko foroa den. Gainera, ezarpen zehatzagoak (2) egiteko aukera eskaintzen digu ere; erantzunak ikusi ahal izateko ikasleak lehendabizi erantzun bat idaztera behartuak egotea edo kalifikatzeko foroa izango den. Talde foroa (3) izateko aukeraketa ere egin daiteke, talde lanak aurrera eramateko oso aukera interesgarria izanik, hala nola erabilgarri egongo den datak ezartzeko aukera ere eskaintzen dutelarik.



6.12 Irudia - Canvas ikastaroan eztabaida foroak sortzen


6.2.7 Galdetegiak

Foroak gehitzerakoan bezala, moduluaren eskuin aldean dagoen “+” ikurrean (6.11 irudian ③) klikatutakoan azterketa, *evaluaciones*, atala aukeratuko dugu orainoan, lehengo prozesua bezala azterketa berria izendatu ondoren gehituko dugu. Behin gehituta galdetegian klikatzerakoan, galdetegiaren ezarpenen laburpena agertzen zaigu, bertan aurrebista aukera edukiko dugula. Ezinbestean egin beharrekoa galdetegiaren ezarpenak zehaztea eta galderak gehitzea izango da (1 6.13 irudian), hurrengoko pausu eta zehaztapenak aukeratuz.



6.13 Irudia - Canvas ikastaroan galdetegien sorrera

①: Galdetegiaren azalpena.




6.14 Irudia - Canvas ikastaroko galdetegien ezarpenak

②: Galdetegi mota: Praktikako azterketa, galdetegi ebaluagarria, inkesta ebaluatua edo ebaluaziorik gabeko inkesta den zehaztea.

③: Aukera gehiago zehazteko: Feedbackak, galderen erantzun egokiak edo okerrak noiz jaso daitezkeen konfiguratzea, denbora muga, saiakera mugatua, izenik gabeko entregak.

④: Zeini bideratuta dagoen, ikastaro osoko ikasleei, sekzio bakar bati, ikastaldean araberako edo bakarkako galdetegi izatea, hala nola noiz den entregatzeko epe-muga eta noiztik edukiko duten eskuragarri zehaztea.

⑤: Galderak sortuko ditugu jarraian, horretarako galdera berria, galdera banku berria edo sortutako galderak bilatu nahiko den zehaztu beharko dugu lehendabizi. Galdera berria sortzeko hurrengokoak jarraituko ditugu, 6.15 irudiaren laguntzarekin:



6.15 Irudia - Canvas galdetegietako galderak sortzen

①: Izenaren izena jarriko dugu eta zein galdera mota sortu nahi dugun erabakiko dugu: aukera anitzak, egia/gezurra, hutsuneak bete, erantzun anitzak, lotzekoak, ... besteak beste.

②: Galderaren balioa ezarriko da, puntuetan.

③: Galdera testua idazteko lekua.

④: Erantzunak eta feedbacka idazteko aukera (galdera motaren araberakoa izanda).

⑤: Galdera gehiago gehitzeko aukera.

6.2.8 Zereginak

Ikastaroetan zereginak gehitzen jardungo gara jarraian, horretarako aurretik egin dugunaren antzera orain zeregina aukeratu, zeregin berria hautatu eta izena jarritakoan sortuko dugu. Kasu honetan bi alderdi izango ditugu aipatzeko, zereginaren edizio ezarpen anitzak eta zeregin hori ebaluatzeko erabiliko dugun errubrika gehitzeko aukera (+ *Rúbrica*). Ezarpenekin hasteko, zereginen egin beharrekoa azaldu beharko da, horretarako testu editorea erabiliz, alegia (1), jarraian zereginaren balio jartzeko aukera dugu hala nola zein motako kalifikazioa jarriko duen ezartzea ere (2) ehunekotan, gai/ez gai, puntuen bidez). Gainera zeregina entregatzeko modua (3) ere zehaztuko da; ez da ezer ez entregatu behar (foroetan hausnarketa partekatu behar denean, adib.), online entregatzekotan, zein fitxategi onartuko den edo zuzenean idatzi beharreko testu bidezko entrega den edo ez zehaztuko dugu edota kanpo baliabide baten bidez egin beharko denean zeregina, zuzenean kanpo baliabide horren URLa txertatzeko aukera ezarriko dugularik.

6.16 Irudia - Canvas ikastaroko zereginen ezarpenak

- 4: Taldekako lana izanda, zein taldek egin beharko duten zehazteko aukeraz gain, talde lana izanagatik ebaluazioak bakarka jartzeko aukera eskaintzen du.
- 5: Elkarren arteko ebaluazioa egiteko derrigortasuna.
- 6: Zein erabiltzaileek egin beharko duten, entregatze epe-muga eta ikusgarri noiztik egongo den zehaztea besterik ez da geratzen.

Ikasleek irakasleek zeregin bakoitza nola ebaluatuko jakiteko, errubrikak erabiltzea da egokiena, ikasleek zeregina burutzerakoan horretan oinarritu daitezkeelarik egokitasun bilatzeko. Hau honela, + *Rúbrica* atalean sartuta, errubrika sortzeko aukera eskaintzen digu; errubrikaren izenburua, irizpideak editatzeko, gehitzeko aukera eskainiz, baita irizpide bakoitzaren puntuazio osoa eta irizpide bakoitzaren puntuazio ezberdinak ezartzeko aukera ahalbidetuz.

Título: [Encontrar una rúbrica](#)

Criterios	Calificaciones				Pts
Ideen antolaketa-egokitasuna Rango <input type="text"/>	3 pts Ideiak paragrafo eta orden egokian antolatuta	2 pts Ideia gehienak ordena egokia da, baina paragrafoen zehaztapena ez da guztiz egokia	1 pts Ideia batzuen antolaketa egokia soilik	0 pts Ideia gehienak ez daude ondo antolatuta	<input type="text" value="3"/> pts
Ortografaren egokitasuna Rango <input type="text"/>	3 pts 0<3 akats ortografiko ditu	2 pts 3<5 akats ortografiko	1 pts 5<8 akats ortografiko	0 pts 8 baino akats ortografiko <	<input type="text" value="3"/> pts
Esaldien ulergarritasun eta koherentzia Rango <input type="text"/>	3 pts Guztiz ulergarria eta irakurreza	1.5 pts Gehiena ulergarria, nahiz eta batzuetan irakurtzeko nahasia den	0 pts Sin marcas		<input type="text" value="3"/> pts
Originaltasuna Rango <input type="text"/>	1 pts Testu originala da	0 pts Ohiko ideietan oinarritako testua da			<input type="text" value="1"/> pts

+ Criterio [Encontrar competencia](#) Puntos totales: 10

- Escribiré comentarios sin formato al evaluar a los estudiantes
- Eliminar puntos de la rúbrica
- No publicar los resultados en el Libro de calificaciones para el dominio del aprendizaje
- Usar esta rúbrica para calificar las tareas
- Ocultar el puntaje total para los resultados de evaluaciones

6.17 Irudia - Canvas ikastaroko errubrikak sortzen

Errubrikaren azpialdean agertzen diren beste ezarpenak zehaztea erabilgarriak izan daitezke ere: feedbacka eskaintzerakoan errubrika formatua erabiliz edo ez adieraztea, errubrika berdina erabiltzea zereginak ebaluatzeko, besteak beste.

6.2.9 Edukien lanketarako baliabideak

Kasu honetan, ikastaroan zehar jorratuko ditugun edukiak ikasleei helarazteko erabili ditzakegun aukera ezberdinak aztertzeraz abiatuko gara, eta horietako bakoitza nola inplementa dezakegun ikasiz. Alde batetik lehen aipatutako orriak ditugu (ikus 6.2.3 *Orriak* atalean nola sortu), hauek aukera asko eskaintzen dizkigute: kanpo baliabideak txertatzeko aukera, testu eta irudiak uztartzen dituen edukia sortzeko aukera, baita gure bideoak gehitzeko aukera ere. Hurrengoko irudietan orrien, bi adibide ezberdin 6.18 eta 6.19 irudietan.

Página de Inicio Ver todas las páginas Publicado

Módulos

Anuncios

Tareas

Evaluaciones

Archivos

Páginas

Foros de discusión

Calificaciones

Rúbricas

Personas

Colaboraciones

Google Drive

Hezurak barnetik

Hezur atalak 3 Copiar e...

Hezur-sistema


Hezurren barrukoa

Ver en YouTube JosuAraEstiava

6.18 Irudia - Canvas ikastaroko orriaren adibidea

Oroitu zaitzete!!!

Gogoratu, irudi honetan egin beharreko atazaren zenbait pista daukazazuea. Bata [web orri honetan](#) erabiltzea ere.



6.19 Irudia - Canvas ikastaroko orriaren adibidea

Lanketak jorrazeko beste modu bat, fitxategien bidezkoa izan daiteke; edukiak lantzeko baliagarriak izango diren fitxategiak igoz. Egin beharreko lehenbaitziko gauza aurrekoetan bezala, baliabideen artean aukeratzekoan kasu honetan fitxategia hautatu beharko da, jarraian dagoeneko ikastaroan igota dagoen fitxategi baten edota fitxategi berri bat igotzearen artean aukeratu beharra dago (1), bigarrengo aukerarekin aurrera egitean ordenagailutik fitxategi berria igoz beharko delarik (2).

“Agregar item” sakatu eta moduluan fitxategia gehituta egongo da, publikatzeko eta edizio ezarpen batzuk aukeran ditugula. Fitxategiak publikatzerako orduan, baimen eta egileen aitoren lizentziak zehaztu beharko ditugu, ikastaroaren ezarpen orokorretan horrela zehaztuz gero.

Agregar Item a Ahozkatasuna lantzen

Agregar Archivo al Ahozkatasuna lantzen

Seleccione el archivo que desea asociar con este módulo o agregue un archivo seleccionando "Archivo nuevo" (New File).

[Archivo Nuevo]
course files

- 1trakurgalak.html
- 1triviala.html
- 2jardueras.pdf
- 2trakurgalak.html

Archivo: nada seleccionado


Carpeta: course files

Colocación de sangría: No colocar sangría

Cancelar Agregar item

6.20 Irudia - Canvas ikastaroan lanketarako fitxategiak gehitzen


Azkeneko baliabidea web-orrialde baten URLa txertatzeko aukera izango da, baliabideetan Kanpo URL aukeratu eta txertatu nahi dugun helbidearen URLa kopia-tuz (1), lortuko dugu. Honetaz gain, orriari izena jartzeko eta beste leiho batean zabalduko den edo ez zehazteko aukera eskura izango dugu.



6.21 Irudia - Canvas ikastaroan lanketarako URLa sortzen


6.3 Erabiltzaileak gehitzen

Ikasleak ikastaro ezberdinetan izen eman aurretik, erabiltzaileak sortu beharrean gaude, ondoren, erabiltzaile horiek ikastaroetan sartu ahal izateko. Hau administratzaile kontua dutenek egin beharko dute nahi eta nahiez, hasieran azaldutako Admin —> Pertsonak atalean sartuta kudeatzen delako. Hemen lehen aipatu bezala, 6.22 irudian oinarrituta, gure administraziopean dauden parte hartzaile guztiak ikusgai izango ditugu, ikasle zein irakasle edo rol ezberdinetako parte hartzaileak. +Personas-era (1) joko dugu, bertan gutxienez izena eta helbide elektronikoa jartzea derrigorrezkoa izango da, nahiz eta hautazko beste ezarpen batzuk agertzen diren ere; SIS izena edo erakusgai izango duten izena, adib. Erabiltzailea jakinarazteko abisu e-maila bidaltzeko aukera (2) izango dugu erabiltzailea gehitu aurretik, (3). Hau eginda, erabiltzaile berria ere listan agertuko da.



6.22 Irudia - Canvas LMSan erabiltzaileak sortzen


Hau beteta, 6.23. irudian ikus daitekeenez irakasleak ikaslearen kontua kudeatzeko gaitasuna izango du, izena aldatu, profileko argazkia jarri,... (2) baita LMSan sarbide modu ezberdinak gehitzeko aukera (1) ere; helbide elektronikoarekin sartzeko beharrik izan gabe, irakasleak sortutako erabiltzaile (Ikasle01) eta pasahitzarekin (Pasahitza_01, adib.) sartzeko aukera eskaintzen da. Hala ere, edozein momentutan erabiltzaileak, bere kontuaren ezarpenak zehazteko aukera guztiak edukiko ditu, jaso nahi dituen notifikazioen ezarpena zehazteaz gain, profileko argazkia edota pasahitza aldatzekoa; kontuaren sorrerari dagokion abisu e-mailean eskatzen den lehengo gauza pasahitza sortzea da eta.



6.23 Irudia - Canvas erabiltzaileen sarbidea gehitzen

6.4 Ikasleak ikastaroan gehitzen


Behin erabiltzailea sortuta, gure ikastaroan gehitzeko aukera izango dugu. *Cursos* —> *Personas* atalean ikastaro bakoitzean dauden ikasle/ irakasle ezberdinak kudeatzeko aukera eskaintzen du, hala nola erabiltzaile ezberdinak gehitzeko aukera, 6.24 irudian ikus dezakegunez:



6.24 Irudia - Canvas ikastaroan ikasleak gehitzen


1: aurrekoan bezala, + *personasen* sartuta gehituko dugu erabiltzaile berri bat erabakitako ikastarora, horretarako 6.25 irudiaz baliatuz; helbide elektronikoa (1),

sarbide identifikadorearen bidez (2) edo SIS identifikazioaren bidez egin daiteke, nahi adina ikasle aldi berean gehitzeko aukerarekin; beti ere, rol eta sekzio berdinekoak izan beharko direla. (3)-ari dagokionez, erabiltzaile horiei dagokien rola zehazteko aukera eskaintzen du, rola: ikasle, irakasle, diseinatzaile, irakasle laguntzaile eta behatzaile izan daitezke, horietako bakoitzak dituen murrizketa edota ezaugarri desberdinekin (aurretik zehaztutako edizio baimenak). Bestalde, sekzioa (4) aukeratzea eskatzen da, ikastaro bat ikastalde ezberdinetan jorratzeko erabilgarria izan daitekeenez, honen bidez zein ikastaldeetan gehituko diren ikasleak adieraztea da helburua.



6.25 Irudia- Ikasleak gehitzeko ezarpenak

(2): b2_eus izenpeko atalean (6.26 irudietan ikus daitekeenez) talde ezberdinak ikuskatzeko sarbidea dugu. Honetan, talde-multzo ezberdinak sortu eta horien zehaztasun batzuk ezartzeko aukera eskaintzen da (1); izena aldatzeko aukera (irudietan ikusitako adibidean bezala) eta taldeko parte hartzaileak irakasleek zehazteko zein ikasleei auto-erregistratzeko aukeren artean hautatu beharra adibidez. Talde-multzoen bidez ikastalde ezberdinetako ikasle taldeak antolatu ditzakegularik. Talde-multzoen barruan, nahi adina talde (2) sortu ditzakegu, talde bakoitzaren izena aukeratu eta (irakasleak sortzeko taldeak direnean) talderik gabeko ikasleak gehitzen joateko, 6.26 irudiaren ezker aldean *estudiantes no asignados* atalean agertutakoak dagoeneko sortuta dauden taldeetan (3) sartzeko aukera eskaintzeaz gain, ikastaldeetan aldaketak egiteko modua ere dagoela. Ikasleak lan-talde txikiagoetan ezartzean taldeko foroak sortu daitezke, taldekideen arteko mezularitza zerbitzua, kideen artean elkar komunikatzeko, hala nola elkarlana bultzatuko duten orrien bidez elkar eragiteko aukera eskaintzen duela.




6.26 irudia- Canvas ikastaroan ikasle taldeak sortzen

③: Irakasleok ikasle bat gehitu ondoren ikaslearen onarpena izan beharko du ikastaroa ikusgai edukitzeko, onartu ezean irakasleei ikaslea pendiente bezala agertuko da; ikastarorako sarbiderik edukiko ez duela.

6.5 Baldintzazko jarduerak

Moduluen ezarpenetan ikusi dugunez, modulu bakoitzaren sarbidea aurre baldintzatzeko aukera dago, honekin aurre baldintzetan modulu zehatz bat osatuta egon behar dela ondorengoren eskuragarritasun murrizketa gainditzeko. Oraingoan, modulu bat osatutzat markatzeko baldintzei buruz arituko gara, horretarako zeregin edo lanketa baliabideak ezinbestean edukiko dituen moduluaren aurrean egon beharko gara, alegia horiek baldintzatu ahal izateko, 6.27 irudia lagungarri izango dugula.



6.27 irudia- Canvas ikastaroan baldintzen ezarpena

①: Baldintzak ezarri nahi ditugun moduluaren eskuinaldeko ezarpenetan dagoen edizioa aukeran sartuko gara.

②: Baldintzatu nahi dugun modulua dela konfirmatu.

③: Baldintza atalean, baldintza guztiak eta hauen ordena zehazteko aukera dugu, edo aldiz, hauetako bat betetzearekin nahiko izatea soilik. Beheraka joanda, *+baldintza* gehitzeko aukera eskaintzen digu, nahi adina baldintza gehitzeko.

4: Baldintzatu nahi dugun zeregina zehaztu eta, baliabide motaren arabera aukera bat edo beste edukitzeko aukera eskaintzen zaigu. Adib. fitxategi bati gehitutako baldintza, ikuste hutsarekin osatutzat zehaztuko aukera izango dugu bakarrik, aldiz, zeregin edota galdetegi batean, gutxienezko kalifikazioa lortzeko beharra (5) edo entregatu izanarekin nahikoa izango delarik esterako.

6.6 Kalifikazio liburua

Bukatzen joateko Canvas LMSan kalifikazio liburua nola ikusten den eta zeintzuk diren eskaintzen dituen ezarpenak aztertuko ditugu (6.28 irudia). Ebaluagarriak diren zeregin ezberdin guztiak osatuko dute ezkerreko menuko kalifikazio ataleko, kalifikazio-liburua, zereginen araberrako ezarpenen arabera gehituko dira automatikoki hemen edo ez.

Nombre d...	Giltzadura... De 10	Hezurrak ki... De 10	Proiektua... De 10	Gizakia mui... De 0	Zer dakizu hez... De 6	Egin beharrek...	Tareas	Total
Ikasle1	7	6			6	65%	100%	73.08%
Ikasle3	-	6			4	60%	66.67%	62.5%
Estudiante de pr...	-	-			-	-	-	-

6.28 irudia- Canvas ikastaroetako kalifikazio-liburua

1: Ikusi aukeran filtroak aplikatzeko, kalifikazio liburua nola antolatzeko baliagarria da, hala nola kalifikazio taulak edukiko duten kolore ezberdinak zehazteko aukera, hauen arabera entrega atzerapenarekin, entregatu gabekoa den, berriz entregatutakoa den adierazten duela.

2: Honetan, kalifikazioa liburua inportatu eta esportatzeko aukera eskaintzen du, .csv fitxategi moduan.

3: Ikasle baten gainean klikatzean, ikasle horren kalifikazio-liburu zehatzagoa eskuragarri uzten duela, 6.29 irudian agerikoa.

Ikasle1-en kalifikazio zehatzaren txostena inprimatzeko aukera eskaintzen du (1), esker aldean gorritz nabarmenduta zereginak banan-banan agertuko dira epe-muga zehaztuta agertuko dela ere. Honekin, automatikoki epez-kanpo jasotakoak (2) atzerapenarekin agertuko dira, kalifikazioan agerikoa den penalizazioarekin.

Calificaciones para **ikasle1** Imprimir calificaciones Total: 73.08%


Organizar por Título Aplicar Ocultar todos los detalles
 Tareas del curso no ponderadas.
 Calcular basándose solo en las tareas calificadas

Nombre	Fecha de entrega	Estado	Puntaje	De
Elizabura motak	4 de jun a las 23:59	CON ATRASO	7	10
Información sobre el puntaje Promedio: 7 Alto: 7 Bajo: 7 Score: 8.0 Late Penalty: -1.0 Cerrar				
Comentarios Osoan eskaria entregatu dugu, guzti egaita izanda ere, berandu entregatu duzunez gero kalifikazioan puntu bat jator' diox. Segi lanean eta sartu hurrengoak epe-mugaren barruan entregatzen, aur bikain egingo dituzada eta! Joana Eskiva, 7 de jun en 12:49 Cerrar				
Sizua mailamenduan, erresioa azalduz	25 de jun a las 23:59		-	0
Información sobre el puntaje Promedio: 6 Alto: 6 Bajo: 6 Cerrar				
Hezurak kioletan			6	10
Información sobre el puntaje Promedio: 6 Alto: 6 Bajo: 6 Cerrar				
Proiektua: Hareman funtsoak kioletan	31 de ago a las 23:59		-	10
Zer da izu beraz, sitemat beruz?	31 de jul a las 23:59		6	6
Información sobre el puntaje Promedio: 5 Alto: 6 Bajo: 4 Cerrar				
Comentarios Ikasari: Joana Eskiva, 7 de jun en 15:58 Cerrar				
Egin beharrikoak			65%	13.00 / 20.00
Tareas			100%	6.00 / 6.00
Total			73.08%	19.00 / 26.00

6.29 irudia- Canvas ikasle baten kalifikazio-liburu zehaztua

- ③: erdialdean kokatzen den informazio zeregin horretan ateratako kalifikazioen batzuek, kalifikaziorik altuena zein baxuena agertzen dira, ikasleak atera duenarekin batera. Irakasleak emandako feedbacka (④) topatzen dugu. Beheko aldean, zeregin guztien batura egiten da, orain arte lortutako puntuazioaren ehunekoak eskaintzen da; orain arte lortutako puntuak gehienez lortu zitezkeen puntuaren artean, alegia.
- ④: Zeregin bakoitza kalifikatzeko orduan, zereginen entregatutakoa deskargatu/ ikusi eta kalifikazioa eskuz, kalifikazio liburura gehitu daiteke edo *SpeedGrader* baliabidea (6.30 irudia) erabili dezakegu, kalifikazioa eta feedbacka automatikoki kalifikazio liburura gehitzen dituen erabili daiteke; honen bidez, zereginen feedback zein kalifikazioa modu errazean ezartzeko aukera eskaintzen du, gainera ikasle/talde guztien lanak jarraian kalifikatzeko aukerarekin.
- ①: Kalifikazio liburura bueltatzeko bidea.
 - ②: Zereginaren izena eta epe-mugak zehazten ditu
 - ③: Hemen, ikaslearen idatziak, egindako galdetegiak, igotako fitxategiak, bideoak kargatuko dira.
 - ④: ikaslearen entrega data, ordua, adib. fitxategiaren izena eta atzerapena duen zereginaren izena dela adierazten du.
 - ⑤: Ebaluazioa egiteko laukian kalifikazioa gehitzeko edota errubrikan oinarritutako zeregin bat izanda, errubrika ikusi eta bertan oinarritutako kalifikazio sortzeko aukera eskaintzen du.

6: Honetan horren garrantzitsua den feedbacka helarazteko lekua eskaintzen da, fitxategi bat igotzeko aukera edota testu laukian idaztekoa.



6.30 irudia- Canvaseko SpeedGrader baliabidea

7. KAPITULUA

7 Canvas eta Moodle-en arteko konparaketa

Atal honen bidez Canvas LMSak eta Moodlek dituzten aldeak aztertzen jardungo dugu, horretarako arlo teknikoak (zenbait webguneetatik jasotako informazioari esker, ikusi bibliografia atala) eta praktikan izandako esperientzia oinarri izanda ezaugarri ezberdinak alderatuko ditugu; ezaugarri teknikoak, administrazio ikuspegitik alde batetik eta ikastaroen ezaugarriak bestetik, irakasleen ikuspegitik banatuta.

Ezaugarri teknikoak	Canvas LMS	Moodle
Erabilgarritasuna	- <i>Canvas by Instructure</i> -k kudeatutako <i>cloud-based</i> eskola kontua (ordainpekoa, aurrerantzean \$).	- <i>Moodle Cloud</i> , moodlek kudeatutako kontua (ordainpekoa, aurrerantzean \$).
	- Open source bertsioan norberak zerbitzariaren bidez instalatzeko aukera (dohainik).	- Open source bertsioa, norberak zerbitzarian instalatzeko (dohainik).
	<i>Free for teachers</i> aukera, banakako irakasleentzako dohaineko aukera.	Proba: 45 eguneko denboramuga
Open source instalazioa	Oso zaila	Oso erraza
Laguntza zerbitzua	- <i>Cloud-based</i> bertsioan: Oso ona - Open source bertsiorako Canvas komunitatean laguntza exkaxa	- Moodle komunitatea oso handia, eta 24/7 eskuragarria eta dohaineko zerbitzua eskaintzen du.
Interfazearen itxura eta honen konfigurazio aukerak	Itxura modernoa, berritua. —> Konfiguragarria, diseinu modernoak eskuragarri.	Itxura zaharkituagoa. —> Konfiguragarria, diseinu ezberdinak deskargatzeko aukera dauka ere.

Konfiguragarritasuna	Itxura oso konfiguragarria, baina errendimendu eta funtzionalitate ezarpenetan oinarritzko konfigurazioa ahalbidetzen du.	Errendimendu eta funtzionalitateari dagozkien konfigurazioa sakonagoa.
Eskuragarritasuna eta M-learning aukera	- 24/7 eskuragarri, nonahi, noiznahi, nondik nahi aukera.	- 24/7 eskuragarri, nonahi, noiznahi, nondik nahi aukera.
	- Mugikorretarako 3 aplikazio ezberdin: Ikasleentzat, irakasleentzat eta gurasoentzat bideratuak. Baina, soilik \$ bertsioan.	- Mugikorretarako aplikazioa eskuragarri.
Erabiltzeko erraztasuna	Intuitiboa, daukan diseinu simple eta errazaren eraginez; oinarritzko erabiltzaile mailakoentzat oso egokia, kudeatzeko. Ikasleentzat ere oso intuitiboa delarik.	Ez da horren intuitiboa, administrazio ikuspegitik eta konfiguratze aldera, erabiltzaileari ezagutza gehiago eskatzen dio. Baina erabilerraztasuna da ikasleei eskaintzen zaien indarguneetako bat.
	Irakasleek ez dute erabiltzen ikasteko berezko ikasketarik behar. Eskaintako laguntza gidak zehaztasun handikoak izanagatik oso erabilgarriak dira.	Irakasleek erabiltzen ikasteko behar handiagoa, dituen aukera guztiak oso konfiguragarria egiten badute ere erabiltzaile aurreratuak behar. Erabiltzaile gidak eskuragarri daude ere.
Bateragarritasuna	SCORM estandarrekin bateragarria, inportatu eta esportatzeko.	SCORM estandarrekin bateragarria inportatu eta esportatzeko.
Kanpo baliabideak	LTI, kanpo baliabideen sarbide azkarrak Canvasen integratzeko aukera eskaintzen du, baina soilik \$.	<i>Plugin</i> ezberdin askoren bitartez Moodlen funtzionalitatea handitzeko aukera.
Hizkuntzak	Hizkuntza askotan konfiguratze aukera eskaini arren, euskara ez dago erabilgarri.	Hizkuntza askotan konfiguratze aukera, euskara ere erabilgarri.
Biltegiak	\$ bertsioan eskuragarri, <i>Canvas Commons</i> biltegia; LMSan sortutako ikastaro kantitate handia topa dezakegu.	<i>MoodleNet</i> -en erabilera sustatzen dute, besteontzat erabilgarriak izan daitezkeen ikasmateriala partekatzeko.

7.1 taula - Canvas LMSaren eta Moodlen ezaugarri teknikoaren konparaketa

Ikastaroen ezaugarriak	Canvas LMS	Moodle
Arbela	Arbelara guztiz konfiguragarria, nahi ditugun ikastaroak bakarrik erakutsiz.	Aginte-panela konfiguragarria ere. Ikaslearen iraganeko, etorkizuneko eta abian dauzkan ikastaroekin.
Hasierako orriaren konfigurazioa	Guztiz konfiguragarria, nahi dugun diseinua ahalbidetuz eta ikastaroaren nondik norakoak zehazteko ere erabilgarria.	Hasierako atala konfiguragarria.
Notifikazioen konfigurazioa	Erabiltzaile guztiek konfiguratu dezakete, notifikazioak noiz jaso. Momentuan, eguneroko laburpena, asteko laburpena, hala nola e-mail bidez jasotzeko ere.	Erabiltzaileek konfiguratzeko aukera: momentuan jasotzeko, emailez edota Moodlen bidez notifikatzeko aukerekin.
Foroak	Ikasleek harpidetza hautazkoa dute, baita mezuak editatu eta ezabatzeko aukera ere.	Ikasleek derrigorrezko harpidetza duten kasuak daude, eta edizio edo mezuak ezabatzeko denbora-muga.
	Taldeko foroak sortzeko aukera, oso. erraza.	Talde foroak sortzeko aukera, nahasiagoa.
Zeregin eta jarduera ezberdinak	Entrega dokumentuak aukera anitzak, fitxategi mota (zehaztuta), URLa edota paperean entregatu beharko den zehazteko aukerarekin.	Entrega dokumentuak aukera anitzak eskaintzen ditu, zehaztasun osoz onartuko direnak ere adierazteko.
Ebaluazioa	Kalifikazio-liburu konfiguragarria eta .csv formatua esportatzeko zein inportatzeko aukera.	Kalifikatzaile-txostena konfiguragarria da oso, hala nola .csv formatuan esportatzeko zein inportatzeko aukera.
	Zereginak kalifikatzeko baliabidea: <i>Speed Grader</i> , bertan zuzenean fitxategiak, testu librea edota bidalketan eskatutako foroetako ekarpenak zuzentzeko aukera eskaintzen duela.	Kalifikazioa baliabidearen bidez, ikasleen entregatzeko dokumentuak deskargatzeko eta ebaluatzeko aukera eskaintzen da.

Barne mezularitza	Posta elektronikoa bezalako zerbitzua, taldekako, jasotzaile anitzentzako mezuak eta fitxategiaz eransteko aukerak ahalbidetzen ditu.	Txat- itxura duen mezularitza zerbitzua, talde-mezuak edo pribatuan idazteko aukerarekin, konfigurazioaren arabera zehaztuta.
Errubrikak	Zuzenean errubrikak sortu, inportatu eta esportatzeko aukera, baita aurretik sortutako errubrika bat berriz erabiltzeko aukera azkarra. <i>Speed Grader</i> -en kalifikazioa errubrikatik modu automatikoan ezartzen du.	Errubrikak sortzeko aukera oso baliagarria, inportatu eta esportatzeko aukerarekin. Kalifikazioa errubrikatik modu automatikoan ezartzen du.
Baldintzazko jarduerak	Baldintzazko jarduerak, modulu osaketara baldintzatuta. Ez dago aukerarik jarduera bat beste jarduera baten baldintzapean jartzeko, soilik zereginen ordena behartu daitekeelarik.	Baldintzazko jarduerak, banan-banan ipintzeko aukera; hautatutako baldintza eta jardueren arabera.
Ikaste-analisi txostenak (Learning Analytics)	Galdetegietan lortzen diren txostenak oso txukunak diren arren, \$ soilik daude sarbideei buruzko informazioa eta lortutako kalifikazioekin sortutako txostenak eskuragarri.	<i>Plugin</i> ezberdinen laguntzarekin ikasleen sarbide eta jardueretan lortutako kalifikazioen jarraipen zehatza egitea ahalbidetzen du.

7.2 taula - Canvas LMSaren eta Moodle ikastaro ezaugarrien konparaketa

Taula hauetan jasotako informazio ezberdina blog, LMS web-orrialdetik, konparaketa orrietan erabiltzaileak eskaini dituzten iritzi ezberdinak eta proiektu hau aurrera eramateko irakurri eta probatu behar izan ditudan esperientzietan oinarrituta dagoela esandakoan, tauletan aipatutako zenbait ezaugarri sakontzen arituko gara jarraian.

Ezaugarri teknikoaren konfigurazio maila eta erabiltzaile mailari buruzko iritzi eta informazio ezberdinak irakurri ostean, argi geratu zaidan gauzetako bat Moodlek eskaintzen dituen konfigurazio tekniko sakonak oinarritzko maila duten erabiltzaileentzat zailegiak izan daitezkeela eta ondorioz, Canvas LMSak jasan duen arrakasta; kudeaketa zein konfigurazio sinplea izanagatik, erabilera asko errazten du eta. Hau esanda, zilegi da esatea konfigurazio sakontasunak adina kudeaketa eta kontrol ahalmenak eskaintzen dituen bezala, sinpletasunak erabilgarritasun eta maneagarritasuna eskaintzen dituela.

Bestalde, LTI-en implementazio, mugikorretako aplikazioen (ikasleentzako, irakasleentzako eta gurasoentzako aplikazioak), *Canvas Common* biltegia zein ikaste-analisi txostenei buruz Canvas LMSak egiten dituen iragarkiak eta eskaintza aukerak soilik ordainpeko, beraiek kudeatutako, kontuetan eskura daitezkeela izan da topatu dugun arazorik nagusienetako bat; eurak iragartzen dituzten aukerarik erakargarrienak ezin direla erabili Canvas LMSa bakoitzak bere zerbitzarian instalatu nahi duenean, open-source mugatua dela esan dezakegu.

Laguntza ezaugarriari buruz kode irekiko bertsioaz hitz egiterakoan esperientzia exkaxa izan da, *canvas.community* eztabaida eta zalantza foroan open-source bertsiorako LTI-en konfigurazioa ahalbidetzerik dagoen galderarekin gure ekarpena egin genuen eta izugarrizko ekarpen bolumena egon arren ez dugu erantzunik jaso. Honekin batera aipatzea ere, hizkuntza askotan konfiguratu daitezkeen arren, euskara oraindik ez dagoela erabilgarri, Euskal Herrian duen erabilgarritasuna maila baxuagatik izan daitekeelakoan gaude.

Konparaketarekin bukatzeko, baldintzazko jardueren ezarpenak ez ohikoak iruditu zaizkit; baldintzak ezarri daitezkeen arren, jarduera bakoitzaren arabera jartzeko aukerarik ez edukitzea harritu ninduen. Egia da, modulu bateko zereginak orden zehatz batean jarraitzeko beharra eta zereginak betetzeko baldintzak zehaztean, Moodle-ek eskaintzen dituen aukera berdintsuak ahalbidetzen dituela.

8. KAPITULUA

8 Ondorioak

HEZikt graduondokoa bukatzera dioanean, azken proiektu honen bidez aztertu nahi genuena lortu dugula uste dut, egoki lortuta ere; ezezaguna genuen LMS berri baten oinarrizko azterketa egitea eta honek dituen aukera edo murriztapen errealak modu praktikoan ikertzea zenez gero. Proiektu honen hasieran esan bezala, LMSak geroz eta garrantzia handiagoa izango baitutenez, merkatuan eskaintzen diren LMS ezberdinak probatzea eta aztertzea ezinbesteko suertatzen zait; ikasleen beharretara bideratuta egongo den eta irakasle, erakunde zein ikastetxeen etengabeko formakuntza emandako aurrera pausoak hezkuntza-eredu hobe baten euskarri izango direlako LMSak eta baliabide teknologikoak.

Aurreko honi, LMSak ezinbestean izan beharko duten ezaugarrietako bat proiektu honek ere izatea izan da hasierako helburuetako bat: proiektu honekin erabilgarritasun izaera lortu izan nahi dugu, alegia, norbaitek behar izatekotan Canvas LMSaren open source bertsioan oinarrizko ezarpen eta aukeren gida liburua edukitzeaz gain, Moodlen ezarpen teknikoekin, ikastaroen ezarpen eta ezaugarriekin egindako konparaketak eskaintzen dituen datuak ere baliagarriak izatea etorkizunerako.

Canvas LMSaren konfigurazioa, sortutako ikastaro probak eta proiektu hau aurrera eramateko egindako azterketa ezberdinetatik lortutako emaitzen ondorioak nahasiak izan direla esan dezakegu, onak eta espero genituenak batzuetan eta ezustekoan jasotakoak besteak:

- Canvaseko marketin taldeak egoki saldutako interfazearen itxura moderno eta erabil erraza horrela da, intuitiboa eta ondo antolatuta ezkerreko menuan. Hasieran, arraro eta nahasia suertatu dakigukeen arren (ezkerreko menuko tipologia ezberdinetan antolatutako atal guztiekin), erabiltzearen poderioz antolaketa horrek lanak errazteko aukera eskaintzen duela jabetu naiz; adib. aurretik sortutako errubrika bat (izen berdineko atalean ikusgarri edukiko duguna) berriki sortzen gabiltzan ikastaroan gehitzeko aukera eskaintzean lana eta denbora aurrezteak lortuz.

- Canvas edota Moodle-en aritutakoen iritzien arabera (*Capterra, Software Advice eta Moodle*-ko eztabaida foroetako parte hartzaileak) ezarpen teknikoari erreparatuta konfiguragarritasun maila baxua dela eta, alegia, sinpleegia izanagatik erabilgarritasuna eskaintzen dio Canvas LMSari; alderdi negatiboa izan daitekeen arren, nire iritziz oso alderdi positiboa da. Izan ere, ezagutza tekniko askorik gabe oso intuitiboa, sinplea eta egokiak diren ikastaroak eskaintzeko aukera paregabea ahalbidetzen duelako, eta Lehen Hezkuntzarako edo D.B.H-rako egokiagoak izanik.
- Ezustekoan jasotako, espero ez genituen ezaugarrien artean, open source bertsioak dituen murrizketekin topatzea izan da: mugikorretako aplikazioak erabiltzeko aukerarik ez izatea eta LTIak inplementatzeko aukera eskuragarri ez dagoela jabetzea. Izan ere, ezin dugu ahaztu *Instructure Inc.* enpresak garatutako LMS-az hitz egiten gaudela. Hala ere eta alde negatibo honi aurre egiteko, integratu ezin ditugu kanpo baliabideetan garatutako edukiak, gamifikazioak, aurkezpen interaktiboak,... *paginas* atalean txertatzeko aukera beti egongo da, kodea HTML editorea erabiliz gehituz edota SCORM pakete baten bidez gehitzeko aukera edukita.
- Ezustekoan jasotako beste ezaugarri garrantzitsu bat, hizkuntzen konfigurazioan jasotakoa izan da; euskara, hizkuntzen ezarpenetan eskuragarri ez egotea, alegia. Gure euskal curriculumean ezinbesteko garrantzian duen atal bat izanik, murriztapen handia izan daitekeela pentsatzen dut.
- Ezustekoan baina baikorra den ezaugarri bat, Canvas LMSak banakako irakasleentzat eskaintzen duen *Free for Teachers* kontua izan da, honetan topatutako murrizketa gehienak konfiguragarritasunari dagozkionak izanik eta ez ordea erabilgarritasunari dagozkionak.

Orokorrean proiektuan zehar bi LMSak alderatuta ezaugarri ezberdin askorekin topo egin arren (gehien bat ezarpen teknikoak), irakasleei dagozkigun ezaugarri eta ezarpenei begiratuta oso antzekoak direla esan beharra daukat. Moodlen egindako ikastaroa Canvas LMSan bikoizterakoan ez dut, hizkuntza, formatu edo itxurakoak kenduta, bestelako ezberdintasun esanguratsurekin topo egin, horrela erabilgarritasunari dagokionez (irakasle ikuspegitik) guztiz gomendagarria dela esango nuke, erabilerraza eta intuitiboa izanik. Ikasle erabiltzailetik begiraturaz gero, proiektuan garatzeko astirik ez eduki arren, probatzeko aukera izan dut eta itxura zein formatua aldatzeaz gain ezarpen berdintsuak dituztela aipatzea besterik ez dut, intuitiboa eta erabiltzen erraza.

Beraz, Canvas LMSari aurretik aipatutako alderdi txar edo murriztezi, kode irekiko bertsioa instalatzeko zailtasunak gehitzen zaizkion arren (administrari ikuspegitik), irakasle roletik gomendagarria izan daitekeen LMS baten aurrean gaude, erabilerraza izanagatik, aurre-ezagutza zein erabiltzen ikasteko *training* askoren beharrik gabekoa gainera. Hala ere, Moodlek bere alde daukan ezarpen garrantzitsu bat faltan duela, euskaraz konfiguratzeko aukera, noski.

Bukatzeko, eskerrak ematea besterik ez zait falta graduondo osoan zehar bidelagun izan ditudan ikaskide, aditu zein irakasle guztiei; zuon guztion ekarpenei esker izugarri erakutsi eta irakatsi didazuelako. Esker bereziak, proiektu hau aurrera ateratzeko bidelagun eta gidari izan dudana tutoreari.

9. KAPITULUA

Eranskina 1

Aurretik esan bezala gure proiektua aurrera ateratzeko Canvas LMSa *ikasten.io* zerbitzarian instalatuta egin genituen ikastaro probak eta ondorengo Moodlekin konparaketa ere. Hau horrela izanda eta edonork Canvas LMSa probatzeko aukera izateko beheko erabiltzaile eta pasahitzak sortu ditugu nahi izanez gero probatzeko aukera edonori ahalbidetuz.

Irakasle zein ikasle kontuak sortuta daude, gehitutako ikastaroak ikasle ikuspegitik nola geratzen diren ere ikusteko aukera eskainirik.

Nabigatzailean, <https://canvas.ikasten.io>-n sartuta hurrengoko erabiltzaileak erabiltzaile egin ditzakezue nahi adina proba.

IRAKASLE erabiltzailea:


Erabiltzailea: irakasle_01

Pasahitza: Pasahitza_01

IKASLE erabiltzailea:

Erabiltzailea: ikasle_01

Pasahitza: Pasahitza_01



9.1 irudia- <https://canvas.ikasten.io>-n sarbidea eta erabiltzaile ezberdinak

10. KAPITULUA

Bibliografia

Bouchrika, I. (2020, septiembre). *LMS Statistics: 2019/2020 Data, Trends & Predictions*. Guide2Research. <https://www.guide2research.com/research/lms-statistics>

Brown, G. (s. f.). Canvas Vs Moodle: Which is better for online teachers? *Master Teaching Online*. 2021ean hemendik berreskuratua: <https://www.masterteachingonline.com/canvas-vs-moodle-which-is-better-for-online-teachers/>

Brush, K. (2019, diciembre). *What is a Learning Management System (LMS) and What is it Used For?* SearchCIO. <https://searchcio.techtarget.com/definition/learning-management-system>

Canvas. (2021). *Canvas account comparisons*. Canvas 2021. https://s3.amazonaws.com/tr-learncanvas/docs/Canvas_Account_Comparisons.pdf

Canvas vs. Moodle. (d.g.). Moodle eztabaida foroa. 2021eko maiatzean hemendik berreskuratua: <https://moodle.org/mod/forum/discuss.php?d=368215>

Cañellas Mayor, A. (2012). LMS y LCMS. Funcionalidades y beneficios. *Revista Comunicación y Pedagogía: nuevas tecnologías y recursos didácticos*, 263-264, 30-32.

Capterra. (s. f.). *CANVAS vs Moodle 2021*. 2021eko maiatzean hemendik berreskuratua: <https://www.capterra.com/learning-management-system-software/compare/127214-80691/CANVAS-vs-Moodle>

Carretero, S., Vuorikari, R., & Punie, Y. (2017). The digital competence framework for citizens. *Publications Office of the European Union*.

Dougiamas, M. (2004). Moodle: A virtual learning environment for the rest of us. *TESL-EJ*, 8(2), 1-8.

Dr. RK Prasad. (2020, diciembre 28). *Discover The Amazing History Of The LMS. ELearning Industry*. <https://elearningindustry.com/brief-lms-history>

Duque, C. T. (2016, diciembre 14). *Europe Report: Moodle Market Share Leader Almost Everywhere*. LMS Pulse. <https://www.lmspulse.com/2016/europe-report-moodle-market-share-leader-almost-everywhere/>

Hashim, N. M. Z., & Mohamed, S. (2013). Development of student information system. *International Journal of Science and Research (IJSR)*, 2(8), 256-260.

Hill, P. (2021, febrero 4). *State of Higher Ed LMS Market for US and Canada: Year-End 2020 Edition*. PhilOnEdTech. <https://philonedtech.com/state-of-higher-ed-lms-market-for-us-and-canada-year-end-2020-edition/>

INTEF. (2017). *Marco Común de competencia digital docente octubre 2017*. https://aprende.intef.es/sites/default/files/2018-05/2017_1020_Marco-Común-de-Competencia-Digital-Docente.pdf

Instructure. (2021). *About instructure*. 2021eko maiatzean hemendik berreskuratua <https://www.instructure.com>

Instructure. (2021). *Canvas guides*. 2021eko maiatzean hemendik berreskuratua <https://community.canvaslms.com/t5/Guides/ct-p/guides>

John, R. (2021). *Canvas LMS course design*. Packt Publishing Ltd.

Kiran. (2020, septiembre). Moodle vs Canvas 2021 - Which LMS is better? (In-Depth Comparison). <https://edwiser.org/blog/moodle-vs-canvas/>

Macura, M. (s. f.). *Open Source LMS Comparison: Moodle vs OpenEdX vs Canvas LMS*. 2021eko apirilean hemendik berreskuratua: <https://www.softkraft.co/learning-management-systems-comparison/>

Pardo-Bunte, M. (2021, marzo 8). *Moodle vs. Canvas: Key Features and Services Comparison*. Better Buys. <https://www.betterbuys.com/lms/moodle-vs-canvas/>

Petrina, S. (2004). Sidney Pressey and the Automation of Education, 1924-1934. *Technology and Culture*, 45(2), 305-330.

Redecker, C. (2017). European framework for the digital competence of educators: DigCompEdu. *Joint Research Centre (Seville site)*.

Sharma, A. (2015, mayo 4). Distance Learning and the LMS a brief History. *ELearn Hub*. <https://elearnhub.org/the-history-of-distance-learning-and-the-lms/>

Software Advice. (2021). *CANVAS vs Moodle—2021 Comparison—Software Advice*. <https://www.softwareadvice.com/lms/canvas-instructure-profile/vs/moodle/>

Stein, J. (2021, Retrieved). *6 Years In at Canvas: Why Open Source Still Matters*. Instructure Resource Hub. <https://www.instructure.com/canvas/en-gb/resources/canvas-lms/6-years-in-at-canvas-why-open-source-still-matters>

Watson, W., & Watson, S. L. (2007). An argument for clarity: What are learning management systems, what are they not, and what should they become. *TechTrends*, 51(2), 28-34.

Wikipedia. (2021). Learning management system. En *Wikipedia*. https://en.wikipedia.org/w/index.php?title=Learning_management_system&oldid=1024607980